

**SPE SALVI
BENEDIKTO XVI.a AITA SANTUAREN
GUTUN-ENT'ZIKLIKA**

**APEZPIKUEI, APAIZEI ETA DIAKONOEI
SAGARATURIKO GIZON-EMAKUMEEI
ETA FEDEDUN LAIKO GUZTIEI
KRISTAU-ITXAROPENAZ**

Luis Baraiazarrak itzulia

Sarrera

1. “*SPE SALVI facti sumus*” – itxaropenean salbatuak izan gara, diotse san Paulok Erromatarrei eta baita guri ere (*Erm* 8, 24). Kristau-fedearen arabera, “berrerospena”, salbamena, ez da eginda dagoen zerbait soilik. Salbamena eskaintzen zaigu itxaropena eman zaigun aldetik, itxaropen fidagarria; horri esker aurre egin diezaiokegu geure orainari: oraina, nekagarria bada ere, jasan eta onar daiteke helmugara badarama eta helmuga handi horren ondoan bideko ahalegina txiki gelditzen bada. Hala ere, berehala datorkigu ondorengo galdera: baina nolakoa izan beharko du itxaropen honek, hortik abiatuz eta itxaropena dagoelako besterik gabe, honek berrerosten gaituela dioen baieztapena ontzat emateko? Eta, nolako ziurtasuna da hori?

Fedea itxaropena da

2. Geure buruari egin dizkiogun eta gaur egun hain biziki sumatzen diren galdera hauetaz jardun baino lehen, oraindik arreta handiagoz entzun behar dugu Bibliak itxaropenaz dioena. Izan ere, “itxaropena” Bibliako fedearen muin-muineko hi-

tza da, pasarte askotan “fedea” eta “itxaropena”, bata bestearen ordeztu erabiltzekoak direla pentsatzeraino. Horrela, *Hebrearrei egintako Gutunak* estu-estu lotzen du “sinesmen osoa” (10,22) “itxaropena irmo aitortzearekin” (10,23). *Pedroren Lehen Gutunak* kristauei *logos* aitortu dezatela eta itxaropenaren arrazoia emateko prest egon daitezela eskatzen dienean (ik. 3,15) ere, “itxaropenak” “fedearen” esanahi bera hartzen du. Lehen kristauen kontzientziarentzat erabakigarria izan zen dohaintzat itxaropen fidagarria hartzea; hori argi ageri da, kristauen izaera, fedea baino lehenagoko bizitzarekin edota beste erlijioen jarraitzaileen egoerarekin konparatzen denean. Paulok gogorazten die Efesoarrei, Kristorekin bildu arte, “itxaropenik gabe eta Jainkoa gabe” bizi zirela (*Ef* 2, 12). Jakina, ongi zekien berak jainkoak izan zituztela, erlijio bat izan zutela, baina haien jainkoak ez zirela ziurrak frogatu zen, haien kontraesaneko mitotatik ez zela inolako itxaropenik sortzen. Jainkoak bazituzten ere, “Jainkoa gabe” zeuden eta, beraz, mundu ilun batean zeuden, etorkizun goibel baten aurrean. “*In nihilo ab nihilo quam cito recidimus*” (ezerezetik ezerezean bai laster erortzen garelako),¹ dio garai hartako epitafio batek. Esaera horretan, hitz erdika ibili gabe, Paulok adierazi zuena bera esaten da. Ildo beretik ari da Tesalonikarrei hitz egitean ere: “Ez zaitezte atsekabetu, itxaropenik ez dutenen antzera” (*1 Ts* 4, 13). Kasu honetan, gainera, kristauen bereizgarri bezala ageri da, hauek etorkizuna dutela: ez dute jakingo zehatz-mehatz zer izango duten gero, baina badakite, oro har, beren bizitza ez dela hutsera bideratua. Geroa errealitate on bezala ziurra denean, orduan izango da soilik eramangarria oraina. Honela, esan dezakegu orain: kristautasuna ez zen “berri ona” soilik, ez zen ordura arte ezagutzen ez ziren edukiak jakinaraztea soilik. Guk geure mintzaeran hau esango genuke: kristau-mezua “informatzeko” ez ezik, “formatzeko” ere bada. Honek esan nahi du Ebanjelioa ez dela jakin daitezkeen gauzak komunikatzea soilik, baita egintzak dakartzan eta bizitza aldatzen duen komunikazioa ere. Denbora-

¹ Ik. *Corpus Inscriptionum Latinarum*, vol. VI, n. 26003.

ren, geroaren, ate iluna zabal-zabal ezarri da. Itxaropena duena beste era batera bizi da; bizi berria eman zaio.

3. Baina orain galdera hau datorkigu: zertan datza itxaropen hau, itxaropen den aldetik "berrerospena" baita? Hortaz, erantzunaren muina lehen aipaturiko *Efesoarrei eginiko Gutunean* ematen da: Kristorekin bildu arte, Efesoarrak itxaropenik gabe zeuden, "Jainkoa gabe" zeudelako munduan. Jainkoa, egiazko Jainkoa, ezagutzera iristea, hori da itxaropena hartzea. Guk, betidanik Jainkoa kristau-erara ulertzen dugula bizi garenez eta hartara eginak gaudenez, Jainko honekin egiaz biltzetik datorren itxaropena izatea, ia igarri ere ez dugu egiten. Gure garai-ko santa baten etsenpluak lagun diezaguke, nolabait, Jainkoa lehen aldiz eta egiaz aurkitzea zer den ulertzen. Josefina Bakhita afrikarraz, Joan Paulo II.a Aita Santuak kanonizatu zuenaz, ari naiz. Darfur-en, Sudanen, jaio zen 1869an gutxi gorabehera, berak ere ez baitzekien data zehatzik. Bederatzi urte zituela esklabo-trafikatzaileek bahitu, jipoitu eta bost aldiz saldu zuten Sudango azoketan. Azkenean jeneral baten amaren eta emazte-aren zerbitzuan esklabo izatera etorri zen. Egunero zigortzen zuten odola isurtzeraino; horren ondorioz, 144 zauri-marka gelditu zitzaizkion bizi guztirako. Azkenik, 1882an merkatari italiar batek erosi zuen Callisto Legnani kontsul italiarraren zerbitzura-ko. Hau, mahdisten eraso zela-eta, Italiara itzuli zen. Hemen, "jabe" ikaragarrien mendean ordura arte egon ondoren, Bakhitak guztiz bestelako "jabea" ezagutu zuen, berak ikasi zuen Veneziako dialektoan "paron" deitu ziona; Jainko bizia ezagutu zuen, Jesu Kristoren Jainkoa. Ordura arte mespretxatzen eta tratu txarra ematen zioten jabeak ezagutu zituen, edota, onenean ere, probetxuzko esklabotzat zutenak. Orain, ordea, esaten zioten bazela "Paron" bat jabe guztien gainetik, jaunen Jauna, eta Jaun hori ona zela, ontasuna bera. Jaun honek ezagutzen zuela eta bera ere Hark egina zela jakin zuen; are gehiago, maite zuela. Bera ere maitatua zen; norik maitatuko eta "Paron" gorenak, honen ondoan gainerakoak morroi ezerezak baitira. Bera ezagutua eta maitatua zen, eta zain zeukan. Areago oraindik:

Jaun honek berak tratu txarrak jasatea onartu zuen eta orain “Jainko Aitaren eskuinaldean” dago beraren zain. Une honetan “itxaropena” izan zuen; ez hain bihotz gogorrekoak ez ziren ja-beak aurkitzearen itxaropen txikia, itxaropen handia baizik: ni behin betiko maitatua naiz, gertatzen dena gertatzen dela; Maitasun handi hau zain daukat. Horregatik nire bizitza ederra da. Itxaropen honen bidez hura “berrerosia” izan zen, jadanik ez zuen bere burua esklabo ikusten, Jainkoaren alaba libre baizik. Ulertu zuen Paulok esan nahi zuena Efesoarrei gogorarazten zienean, lehenago itxaropenik gabe eta Jainkoa gabe zeudela munduan; itxaropenik gabe, Jainkoa gabe zeudelako. Horrela, Bakhita Sudani entregatzea nahi izan zenean, hark ezetz esan zuen; ez zegoen prest bere “Paron” honengandik berriro bereiz zezaten. 1890eko urtarrilaren 9an Veneziako Patriarkaren esku-tik hartu zituen Bataioa eta Sendotza eta egin zuen lehenengo Jaunartzea. 1896ko abenduaren 8an egin zuen profesia Veronan, ahizpa Kanosiarren Kongregazioan, eta harrezkero –komentuko elizain eta atezain zeregina beteaz gainera– batez ere, Italian zehar eginiko zenbait bidaiatan, misiorako aholkua ematen saiatu zen: berak Jesu Kristoren Jainkoarekin biltzean jaso zuen askapena besteengana zabaldu beharra sentitzen zuen; albait eta gehienek jaso behar zuten hori. Beragan sortu zen eta “berrerosi” zuen itxaropena ezin zuen beretzat bakarrik gorde; itxaropen honek askorengana, guztiengana iritsi behar zuen.

Fedean oinarrituriko itxaropena

Itun Berrian eta hasierako Elizan

4. Kristogan bere aurpegia agertu digun eta bere Bihotza zabaldu duen Jainkoarekin biltzea, guretzat, “informatzeko” ez ezik, “formatzeko” ere ote den, hau da, gure bizitza alda deza-keen, biltze horrek adierazten duen itxaropenaz geure buruak berrerosiak sumatzeraino. Galdera honi heldu aurretik, itzul gaitetzen berriro hasierako Elizara. Erraz ohartzen gara, Bakhita afrikar esklabo txikiaren esperientzia, kristautasun jaio berriaren garaian tratu txarrak jasan zituzten eta esklabotzara kondenatuak

izan ziren beste askoren esperientzia ere badela. Kristautasunak ez zekarren iraultza sozialaren mezurik, Espartakorenak bezala, honek borroka odoltsuetan porrot egin baitzuen. Jesus ez zen Espartako, ez zen askapen politikoa lortzearren borrokatzen zena, Barrabas edo Bar-Kokebá bezala. Jesusek ekarri zuena, berberak gurutzean bizia emanez, guztiz bestelakoa zen: jaunena Jaunarekin biltzea, Jainko biziarekin biltzea eta, horrela, esklabotzaren oinazeak baino indartsuagoa den itxaropena aurkitzea, eta horregatik bizitza eta mundua barrutik aldatzen duena da. Gauza berri hori ezin argiago agertzen da san Paulok *Filemoni eginiko Gutunean*. Gutun pertsonala da, Paulok kartzelan idazten duena, Onesimo esklabo iheslariaren bitartez bidalia, hain zuzen ere beronen jabeari, Filemoni. Bai, Paulok esklaboa jabeari itzultzen dio, harengandik ihes eginga baitzen, eta ez du egingiten agindua emanez, erregutuz baizik: “Mesede bat eskatu nahi dizut kartzelan sortu dudana nire seme Onesimorentzat [...]. Berritortzen dizut bera, ene bihotz-bihotzeko dudana hau [...]. Agian, horretarako alde egin zizun apur batez, gero betiko har zenezan, eta ez esklabo bezala, esklabo baino zerbait gehiago, anaia maite bezala baizik” (*Flm* 10-16). Gizakiak, egoera zibilarren aldetik jabe eta esklabo bezalako erlazioa dutenak, Eliza bakarraren kide diren aldetik elkarren senide bihurtu dira: horrela deitzen diote elkarri kristauak. Bataioak biziberrituak izan dira, Espiritu berberaz beteak eta batera hartu dute, elkarren ondoan, Jaunaren Gorputza. Azaleko egiturek lehengo hartan badiraute ere, honek barrutik aldatzen du gizartea. *Hebrearrei eginiko Gutunak* kristauak arrotz eta atzerritar direla lur honetan eta aberriaren bila dabiltzala aitortzen duenean (ik. *Hb* 11, 13-16; *Flp* 3, 20), ez du esan nahi etorkizuneko egoera soilik, oso bestelakoa den zerbait baizik: kristauak aitortzen dute oraingo gizarte hau ez dela beren jomuga; gizarte berri batekoak dira, harako bidean daude eta bidez doazela haren aurrerapena dute.

5. Oraindik beste ikuspegi bat gehitu behar dugu. *Korintoarrei eginiko Lehen Gutunak* (1, 18-31) agertzen digu lehen kristautetatik gehienak beheko gizarte-mailetakoak zirela eta, hain

zuzen ere horregatik, prest zeudela itxaropen berriaren esperienziarako, Bakhitaren kasuan ikusi dugun bezala. Hala ere, maila aristokratiko eta goikoetan ere hasieratik izan ziren konbertsioak. Hain zuzen ere, “itxaropen gabe eta Jainkoa gabe” bizi zirelako munduan. Mitoak indarra galdu zuen; Estatu erromatarraren erlijioa kamustu egin zen, zehatz-mehatz betetzen zen zeremonial huts bihurtuz, baina azken batean “erlijio politiko” soila izatera etorri zen. Arrazionalismo filosofikoak jainkoak irrealtasunera baztertu zituen. Jainokozkoa era askotara ikusten zen kosmosen indarretan, baina otoitz egin geniezaion Jainkorik ez zen. Paulok guztiz egoki azaltzen du erlijioari buruz garai hartan zegoen problematika, “Kristoren araberako” bizitzaren aurrez aurre “munduko elementuen” agindupean dagoen bizitza jartzen duenean (ik. *Kol* 2, 8). Hemendik ikusita, san Gregorio Nazianzokoaren testu bat dago, oso argigarri izan daitekeena. Magoek, izarrak gidaturik, errege berria, Kristo, gurtu zuten une berean astrologiarenak egin zuela diosku, harrezkero izarrak Kristok ezarritako orbitan zehar biraka ari direlako.² Izan ere, eszena honetan munduaren orduko ikuspegia alderantziz jartzen da, eta hau, beste era batera bada ere, indarrean dago berriro ere gaur egun. Ez dira kosmosaren elementuak, materiaren legeak, azken batean, mundua eta gizakia gobernatzen dituztenak, baizik eta Jainko pertsonala da izarrak, hau da, unibertsoa, gobernatzen duena; azken gakoa ez dira materiaren eta eboluzioaren legeak; arrazoa, borondatea, maitasuna baizik: Pertsona bat. Eta Pertsona hau ezagutzen badugu, eta hark gu, orduan gauza materialen halabeharrezko indarra ez da jadanik azken gakoa izango; jadanik ez gara unibertsoren eta honen legeen morroi, orain libre gara. Konturatze honek, antzina bila ari zirenen espiritu benetakoengan eragin du. Zerua ez dago hutsik. Bizitza ez da legeen eta materiaren zoria- ren emaitza hutsa, baizik eta gauza guztietan eta gauza guztien gainetik, borondate pertsonal bat dago, Jesusengan Maitasun gisa agertu den Espiritu bat dago.³

² Ik. *Poemata dogmatica*, V, 53-64: PG 37, 428-429.

³ Ik. *Catechismus Catholicae Ecclesiae*, nn. 1817-1821.

6. Kristautasunaren hasierako sarkofagoek argi-argi erakusten dute pentsaera hori, heriotzaren aurrean, une horretan ezinbestekoa baita bizitzak nora daraman galdetzea. Antzinako sarkofagoetan Kristo bi irudiren bidez adierazten da: filosofoaren irudiaz eta artzainarenaz. Oro har, filosofia ez zen garai hartan hartzen, gaur egun hartzen denez, diziplina zail bat balitz bezala. Filosofoa batez ere, funtsezko artea irakasten zekiena zen: era egokian gizaki izateko, bizitzeko eta hiltzeko artea irakasten zuena. Egia esan, aspaldidanik ohartu ziren gizakiak, filosofoztat, bizitzako maisutzat, beren buruak agertzen zituzten asko eta asko berritsuak baizik ez zirela, beren hitz-jarioaz dirua irabazi nahi zutenak baizik ez zirela, egiazko bizitzaz inolako zer esanik ez baitzuten. Horregatik, ahalegin handiagoz bilatzen zen benetako filosofoa, bizitzako bidea egiaz seinalatzen zekiena. III. mendearen amaierarantz aurkitzen dugu lehen aldiz, Erroman, haur baten sarkofagoan eta Lazaroren piztueraren testuinguruan, Kristoren irudia egiazko filosofo gisa, esku batean Ebanjelioa zuela eta bestean filosofoarena den ibiltariaren makila. Makila honekin Hark heriotza gainditzen du; Ebanjelioak filosofo ibiltariak alferrik bilatu zuten egia du. Irudi honetan, sarkofagoetako artean luzaro iraungo duen honetan, argi eta garbi erakusten da bai pertsona jantziek eta bai xumeek Kristogan aurkitzen zutena: Hark esaten digu gizakia egiaz nor den eta zer egin behar duen egiaz gizaki izango bada. Hark seinalatzen digu bidea eta bide hau egia da. Berbera da bai bata eta bai bestea, eta, beraz, baita guztiok irrikatzen dugun bizia ere. Hark seinalatzen du bidea ere, heriotzaz haratago doana; hau guztiau egiteko gai dena da soilik bizitzako egiazko maisua. Gauza bera ikus daiteke artzainaren irudian ere. Filosofoa irudikatzeko bezala, artzainaren irudia adierazteko ere, hasierako Elizak arte erromatarrean lehendik ziren eredueta jo zezakeen. Horietan, artzainak eskuarki bizitza bare eta lauaren ametsa adierazten zuen; halako bizimoldearen nostalgia izan ohi zuen hiriko nahasmenduan murgildua zen jendeak. Baina orain hori beste ikuspegi batetik begiratzen da eta eduki sakonagoa hartzen du:

“Jauna dut artzain, ez zait ezer falta... Ibar beltz-ilunetan banabil ere, ez dut inolako gaitzen beldurrik, zu nirekin baitzaude...” (*Sal* 22, 1-4). Benetako artzaina, heriotzaren ibarrean zehar doan bidea ere ezagutzen duena da; are gehiago, azken bakardadeko bidean zehar, beste inork lagun ez diezadakeen bide hartan ere nirekin doana, batetik bestera pasatzeko nondik joan esaten: Berbera igaro da bide honetatik, heriotzaren erreinura jaitsi da, azpiratu egin du, eta orain guri lagun egitera itzuli da eta Berarekin bidea irekita dagoela ziurtatzera. Heriotzan bertan ere lagun egiten didan eta bere “artzain-makilaz lasaitzen nauen” Hura badela jakitea, “ezeren beldur ez naizelarik”, (ik. *Sal* 22, 4), hori zen fededunen bizitzan sorturiko “itxaropen berria.

7. Itun Berrira itzuli behar dugu berriro. *Hebrearrei eginiko Gutunaren* hamaikagarren kapituluan (1. tx.) dago fedearen definizio antzeko bat, bertute hau itxaropenarekin estu-estu lotzen duena. Erreformaz gero, exegetek eztabaida egiten dute esaldi horretako hitz nagusiaz, eta horretan, badirudi gaur egun interpretazio bateraturako bidea doala irekiz. Oraingoz itzulpenik gabe utziko dut hitz nagusi hori. Esaldia hau da: “Fedea itxaroten denaren *hypostasis* eta ikusten ez denaren egiaztapena da”. Erdi Aroko Eliz Guraso eta teologoentzat argi zegoen grekozko hitza, *hypostasis*, *substantia* hitzaz itzultzen zela latinera. Beraz, antzinako Elizan egin zen latinezko itzulpena hau da: “*Est autem fides sperandarum substantia rerum, argumentum non apparentium*”, Fedea itxaroten denaren “substantzia” da; ikusten ez denaren egiaztapena. Tomas Akinokoak,⁴ bere ingurumariko tradizio filosofikoan erabili ohi zen terminologiaz baliatuz, honela azaltzen du hau: fedea *habitus* bat da, hau da, gogoaren jarrera iraunkor bat da eta, horri esker, betiko bizitza hasten da gugan eta adimena berak ikusten ez duen hori onartzera makurtzen da. Beraz, “substantzia” deritzon kontzeptua aldatu egiten da, zentzu honetan aldatu ere: fedearen bidez, era hasi berrian, “ernamuinetan” esan

⁴ *Summa Theologiae*, II-II, q. 4, a. 1.

genezake –beraz “substantziaren” arabera– jadanik gugan presente daude itxaroten diren errealitateak: gutzia, egiazko bizia. Eta hain zuzen ere errealitatea bera presente dagoelako, etortzeko denaren presentziak ziurtasuna ere sortzen du: etortzeko den “errealitate” hau ez da oraindik ikusten kanpoko munduan (ez da “ageri”), baina hasieran dagoen errealitate dinamiko gisa geure barruan daramagunez gero, haren nolabaiteko pertzepzioa sortzen da jadanik. Luterori, *Hebreaarren Gutuna* bere hartan ez baitzitzaion hain atsegin, “substantziaren” kontzeptuak ez zion ezer esaten, fedea zer den ulertzeko. Horregatik, *hipóstasis/substantia* hitza ez zuen ulertu era objektiboan (gugan presente dagoen errealitatea), era subjektiboan baizik, hau da, barruko jarreraren adierazpen gisa eta, beraz, *argumentum* hitza ere subjektuaren jarrera gisa ulertu behar izan zuen, jakina. Interpretazio hau XX. mendeko exegesi katolikora ere zabaldu zen, Alemanian behintzat; eta horrela, Elizen arteko Itun Berriaren alemanezko itzulpenak, Apezpikuek onartuak, hau dio: “*Glaube aber ist: Feststehen in dem, was man erhofft, Überzeugtsein von dem, was man nicht sieht*” (fedea itxaroten dena lortzeko sendo egotea da, ikusten ez diren gauzez konbentzitua egotea). Berez ez dago okerrik hemen, baina ez da hori testuak esan nahi duena, erabili den grekozko hitzak (*elenchos*) ez baitu “konbentzimendu” hitzak duen balio subjektiboa, “egiaztapen” hitzaren esanahi objektiboa baizik. Horregatik, protestanteen oraintsuko exegesia bestelako uste batera iritsi da, arrazoiz, iritsi ere: “Jadanik argi dago, klasiko bihurtu den protestanteen interpretazioak ez duela euskarri-rik”.⁵ Fedea ez da etorriko den eta oraindik guztiz absente dagoenerantz abiatzea soilik; fedea zerbait ematen digu. Itxaroten dugun horren zerbait ematen digu jadanik, eta presente dagoen errealitate hori da guretzat oraindik ikusten ez denaren “egiaztapena”. Horrek gerokoa oraingora erakartzen du, eta beraz, gerokoa ez da “oraindik ez” hutsa. Gero hori badela jakiteak aldatu egiten du oraina; geroko errealitateak markatzen

⁵ H. Köster: *Tb WNT VIII* (1969), 585.

du oraina, eta honela, geroko errealitateek eragina dute orain-goetan eta oraingoek gerokoetan.

8. Azalpen honek oraindik indar handiagoa hartzen du eta bizitza konkretuarekin lotzen da, *Hebrearrei eginiko Gutunaren* 10. kapituluko 34. txatala kontuan hartzen badugu. Izan ere, hizkuntzaren eta edukiaren aldetik, itxaropenez beterik dagoen eta aldi berean itxaroten dena prestatzen duen fedearen definizio honekin zerikusia du. Hemen, autoreak pertsekuzioaren esperientzia izan duten fededunei hitz egiten die eta hau diotse: “Parte izan zenuten kartzelatuen oinazeetan eta pozik sufritu zenuten zeuen ondasunak kendu zizkizuetenean (*hyparchonton* – Vg: *bonorum*), jakinik aberastasun bikainagoa eta iraunkorragoa zenutela (*hyparxin* – Vg: *substantiam*)”. *Hyparchonta* ondasunak dira, lurreko bizitzan mantenua, oinarria, bizitzeko edukitzen den “substantzia” osatzen dutenak. “Substantzia” hau, bizitzan izan ohi den ziurtasuna, kendu egin diete kristauei pertsekuzioan. Onez eraman dute, azken batean ez baitzioten garrantzirik ematen substantzia material hau galtzeari. Utz zezaketen hori, bizi izateko “oinarri” hobea aurkitu baitzuten, betiko irauten duen eta inork ken ez dezakeen oinarria. Bi “substantzia” mota hauek, hau da, mantenu edo oinarri materialak eta iraun egiten duen “oinarri”, “substantzia” gisa fedearen finkotasunak, bata bestearekin duten zerikusia begi bistakoa da. Fedetak oinarri berria ematen dio bizitzari, gizakiak bertan euskarria eduki ahal izateko oinarri berria, ohiko oinarriak, errenta materialean izan ohi den konfiantzak, garrantzia galtzeraino. Askatasun berria sortzen da, itxuraz soilik bizitzari eusteko gai den bizitzako oinarri honen aurrean, baina horrek ez du ukatzen, noski, bizitzako oinarri honen ohiko esanahia. Askatasun berri hau, eman zaigun “oinarri” berriaren kontzientzia, agerian jarri da ez martiritzan soilik; martiritzan pertsonak aurre egin diote ideologiaren eta honen organo politikoen nagusikeriari, mundua beren heriotzaren bidez eraberrituz. Agerian jarri da uko egite handietan, antzinako monjeetatik hasita Frantzisko Asiskoaganaino, eta Institutu eta Talde erlijioso modernoetan dauden gure garai-

ko pertsonenganaino. Hauek guztia utzi dute Kristoren maitasunagatik, fedea eta Kristoren maitasuna gizakiei eramateko, gorputz eta arima sufritzen daudenei laguntzeko. Kasu hauetan egiaztatu da, “substantzia” berria egiazko “substantzia” dela; Kristok ukitutako pertsona hauen itxaropenetik sortu da itxaropena ilunpetan eta itxaropenik gabe bizi ziren beste askorentzat. Haiengan egiaztatu da, bizi berri honek benetan “substantzia” duela eta besteentzat bizia sortzen duen “substantzia” dela. Guretzat, figura hauek aurrean ditugunontzat, haien bizitza eta haien portaera, izatez, geroko errealitateak, Kristoren promesa, itxaroten den errealitatea bakarrik ez, benetako presentziaren “egiaztapena” ere bada: Hura da egiaz bizitza zer den eta non dagoen seinalatzen digun “filosofoa” eta “artzaina”.

9. *Hypostasis* eta *hyparchonta* izeneko bi substantzietz eta haien bidez adierazitako bi bizitza moduez egindako gogoeta hau hobeki ulertzeko, oraindik argudio honi dagozkion eta *Hebrearrei eginiko Gutunaren* 10. kapituluan datozen bi hitzez pentsatu behar dugu unetxo batean. Hauek dira: *hypomone* (10, 36) eta *hypostole* (10, 39). *Hypomone* hitzak “pazientzia” esan nahi du, iraupena, etsi gabe ekitea. Fededunak itxaroten jakin behar du, probak egonarriz jasanez, “agintzaria eskuratze-ko” (ik. 10, 36). Antzinako juduen erlijiotasunean, hitz hau berriaz erabili zen Israelen ezaugarria zen Jainkoaren zain egotea adierazteko: haren irautea Jainkoaganako leialtasunean, Itunaren ziurtasunean oinarrituz, Jainkoa ukatzen duen munduaren erdian. Horrela, hitzak itxaropenez bizi izatea, itxaropenaren ziurtasunean oinarrituriko bizitza, esan nahi du. Itun Berrian Jainkoaren zain egote honek, Jainkoaren aldetik egote honek, esanahi berria hartzen du: Jainkoa Kristogan agertu da. Geroko errealitateen “substantzia” helarazi digu jadanik eta, horrela, Jainkoaren zain egoteak ziurtasun berria hartzen du. Geroko errealitateak itxaroten dira, baina emana izan den orain honetatik abiaturik. Kristoren aurrean, Kristo presente dela itxarotea da, haren Gorputza noiz osatuko egotea da, haren behin betiko etorreraren zain. *Hypostole* hitzak, ordea, beharbada arriskutsu

izan daitekeen egia argi eta tolesgabe esaten ausartzen ez denagandik atzera egitea esan nahi du. Gizakiengandik, haiekiko beldurragatik, ezkutatzeak “hondamenera” eramaten du (*Hb* 10, 39). Aitzitik, *Timoteori eginiko Gutunak* kristauaren barruko jarrrera esaldi eder batez adierazten du: “Jainkoak ez digu beldurti egiten gaituen espiritua eman, indarra eta maitasuna ematen eta geure buruaren jabe egiten gaituen espiritua baizik” (1, 7).

Zer da betiko bizitza?

10. Orain arte hau izan dugu mintzagai: fedea eta itxaropena Itun Berrian eta kristautasunaren hasieran; baina argi izan dugu, ez dugula iraganaz soilik hitz egiten; gogoeta osoa bizitza eta heriotzaz da orokorki eta, beraz, badu zerikusirik gurekin ere orain eta hemen. Hala ere, galdera hau argi-argi egiteko unea da: guretzat ere kristau-fedea orain gure bizitza eraldatzen duen eta hari eusten dion itxaropena ote da? Guretzat “formatzailea” ote da, bizitza bera era berriz moldatzen duen mezua ote da, ala honezkero “informatzaile” hutsa, bien bitartean bazterrean utzi duguna eta oraintsuagoko informazioek gaintitu dutela uste duguna? Erantzunaren bila, elkarrizketaren bide klasikotik jo nahi nuke, Bataioko erritoan jaio berria fededunen elkartean hartzea eta Kristogan birjaiotzea adierazten duen elkarrizketaren bidetik. Lehenik apaizak haurrarentzat zer izen aukeratu zuten galdetzen zien gurasoei, eta horren ondoren, beste galdera hau: “Zer eskatzen diozue elizari?” Erantzuna: “Fedea”. Eta “Zer ematen dizu fedea?”. “Betiko bizitza”. Elkarrizketa honen haritik, gurasoek federako sarbidea nahi zuten haurrarentzat, fededunekin elkartzea, fedean “betiko bizitarako” giltza ikusten baitzuten. Izan ere, atzo bezala gaur, Bataioan, norbait kristau egiten denean, hori da bilatzen dena: ez da kristau-elkartean sartze hutsa, ezta Elizak egiten dion harrera hutsa ere. Gurasoek zerbait gehiago nahi dute bataioa hartuko duen haurrarentzat: fedea bizitza, betiko bizitza ematea nahi dute, Elizaren gorputza eta haren sakramentuak fedean partaide baitira. Fedea itxaropenaren oinarria da. Baina

ondoren galdera hau dator: Benetan nahi dugu hori? Benetan nahi dugu betiko bizitza? Askok, agian, arbuiatu egiten dute fedea gaur egun, betiko bizitza ez baita desiragarri beraientzat. Ez dute inola ere nahi betiko bizitza, oraingoa baizik; eta, horretarako, betiko bizitzan sinestea, oztopo dela gehiago uste dute. Amaierarik gabe bizitzen jarraitzea, dohaina baino gehiago zigorra dirudi. Egia esan, heriotza al bait gehien atzeratu nahi izaten da. Baina beti bizi izatea, amaierarik gabe, azken batean, aspergarria eta eramangaitza izango litzateke. Horixe dio, hain zuzen ere, Anbrosio Eliz Gurasoak Satiro bere anaia-
ren hileta-hitzaldian: “Egia da heriotza ez zela berez gure izaeraren parte, baizik eta sartu egin zela hartan; Jainkoak ez zuen hasieratik egin heriotza; erremediotzat eman zigun [...]. Izan ere, gizakiaren bizitza, bekatuaren erruz lan neketsu eta sufrikario eramangaitzera kondenatua, errukarri bihurtzen hasi zen: gaitz hauei amaiera eman beharra zegoen, bizitzak galdu zuena heriotzak itzul zezan. Hilezkortasuna, izan ere, ondasuna baino gehiago zama astuna da, grazia tartean sartzen ez bada”.⁶ Eta Anbrosiok lehenago ere esana zuen: “Ez dezagun negar egin heriotzagatik, salbamenaren iturri baita”.⁷

11. San Anbrosiok hitz horien bidez zehazki esan nahi zuena edozein izanda ere, heriotza kentzeak, baita ia mugagabe atzeratzeak ere, lurra eta gizakia ezinezko egoeran jarriko lituzke eta pertsonari berari ez lioke inolako onurarik ekarriko. Argi dagoenez, gure jarreraren kontraesana dago, gure izaeraren beraren barruko kontrasteari dagokiona. Batetik, ez dugu hil nahi; maite gaituztenek, batez ere, ez dute nahi gu hiltzea. Bestetik, berriz, mugarik gabe bizitzen jarraitzerik ere ez dugu nahi, eta lurra ere ez dago horretarako egina. Orduan, zer da egiaz nahi duguna? Gure jarreraren paradoxa honek galdera sakonago baten aurrean jartzen gaitu: zer da egiaz “bizitza”? Eta zer esan nahi du egiaz “betikotasunak”? Noizbehinka zerbait sumatzen dugu bat-batean: bai, hau litzateke, izan ere, egiazko “bizitza”; horrelakoa

⁶ *De excessu fratris sui Satyri*, II, 47: CSEL 73, 274.

⁷ *Ibid.*, II, 46: CSEL 73, 273.

izan beharko luke. Aitzitik, gehienetan “bizitza” deritzaguna, ez da hala. Agustinek, otoiñari buruz Probari, Erromako alargun dirudun eta hiru kontsulen amari, eginiko gutun luzean, hau dio: Azken batean gauza bat nahi dugu soilik, “bizitza zoriontsua”, benetako bizitza, benetako “zoriona”. Egia esan, otoiñean ez dugu besterik eskatzen. Ez dugu beste inongo jomugarantz jotzen, horretaz ari gara soilik. Baina gero Agustinek beste hau ere badio: ondo pentsatuz gero, ez dakigu zer nahi dugun, zer nahi genukeen zehazki. Gauza hori erabat ezezaguna zaigu; hatz puntekin ukitzen dugula dirudienean ere, ez dugu egiaz atzematen. “Guk ez dakigu behar bezala otoiñ egiten” aitortzen du, san Pauloren hitzak errepikatuz (*Erm* 8, 26). Dakigun gauza bakarra, hau ez dela. Baina, geure ezjakintasunean ere badakigu errealitate hori badela. “Beraz, nolabait esateko, gudan ezjakintasun jakintsu bat (*docta ignorantia*) dago”, idazten du. Ez dakigu egiaz zer nahi dugun; ez dugu “egiazko bizitza” hau ezagutzen eta, hala ere, badakigu ezagutzen ez dugun eta beragana bultzatzen dugun hori badela, izan behar duela.⁸

12. Uste dut, pasarte honetan Agustinek zehazki eta era baliagarrian adierazten duela gizakiaren funtsezko egoera, haren kontraesan guztien eta itxaropenen iturri den egoera. Nolabait bizitza bera nahi dugu, egiazkoa, heriotzak berak ere itsusaraziko ez duena; baina, era berean, ez dugu ezagutzen sentitzen dugun bultzadak norantz garamatzen. Harantz jotzen dugu ezinbestean, baina badakigu izan dezakegun edo egin dezakegun oro ez dela guk nahi duguna. Ezagutzen ez dugun errealitate hau da bultzatzen dugun egiazko “itxaropena” eta, era berean, hura ez ezagutzen dakartza etsipenak, baita bultzada positiboak eta hondatzaileak ere benetako munduaren eta gizakiaren bila. Errealitate ezezagun horri nolabait izena eman nahirik erabiltzen dugu “betiko bizitza” espresioa. Ezinbestean erabili den espresio honek nahasbidea dakar. Hain zuzen ere, “betikoak” amairik gabea denaren ideia sortzen du gudan eta horrek beldurra ematen digu;

⁸ Ik. *Ep. 130 Ad Probam* 14, 25-15, 28: *CSEL* 44, 68-73.

“bizitza” hitzak geuk ezagutzen dugun, maite dugun eta galdu nahi ez dugun bizitza dakarkigu gogora, baina era berean askotan pozgarri baino gehiago nekagarri dena; horrela, alde batetik maite dugu, baina bestetik ez. Geure pentsamenduaren bidez soilik saia gaitezke loturik gauden denborazko zeretik irteten eta horrela iragar dezakegu, nolabait, betikotasuna ez dela egutegiko egunen etengabeko segida bat, pozez beteriko une bat bezalako baizik; osotasunak gu besarkatzen gaituen eta guk osotasuna besarkatzen dugun unea. Maitasun azkengabearen itsasoan murgiltzeko unea izango litzateke, eta han ez dago denborarik, ez lehenik ez gerorik. Gu saia gintezke pentsatzen une hau bizitza dela bere osotasunean, izatearen neurrigabetasunean beti berriro murgiltzea, pozez gainezka egonik. Joanen Ebanjelioan honela adierazten du Jesusek: “Berriro agertuko natzaizue, eta poztu egingo zarete, eta poz hori inork ez dizue kenduko” (16, 22). Hortik jo behar du gure pentsamenduak, kristau-itxaropenaren helburua ulertu nahi badugu, hau da, fedetik, geure Kristogan izatetik zer itxaroten dugun ulertu nahi badugu.⁹

Indibidualista ote da kristau-itxaropena?

13. Kristauak, historian zehar, ez dakigun jakintza hau adierazgarri diren irudien bidez agertzen saiatu dira, “zeruaren” irudiak erabiliz; betiere urrutikoaj gertatzen diren irudiak dira eta, horrexegatik, era negatiboan soilik ezagutzen ditugunak: ez ezagutzaz. Mendeetan zehar, itxaropena adierazteko ahalegin horiek, fedean oinarriturik bizi izatera bultzatu ditu asko eta, horren ondorioz, beren “*hyparchonta*” alde batera uztera, bizitzeko euskarri materialak alde batera uztera. *Hebrearrei Gutuna* idatzi zuenak, 11. Kapituluari, itxaropenez bizi direnen eta hauen bidez joatearen historia antzekoa taxutu nahi izan du, Abelengandik hasita autorearen garaira arte. Azken urteotan kritika gero eta zorrotzagoa piztu da itxaropen mota honen aurka: indibidualismo hutsa dela egozten zaio, mundua bero-

⁹ *Catechismus Catholicae Ecclesiae*, n. 1025.

nen miserian utzi duela eta erabat pribatua den betiko salbamean babestu dela. Henri de Lubac-ek, *Catholicisme. Aspects sociaux du dogme* izeneko bere obra nagusiaren sarreran, joera honen ezaugarri diren zenbait lekukotasun bildu ditu; hona hemen haietako bat: “Poza aurkitu dut? Ez... Neure poza aurkitu dut. Eta hau erabat desberdina da... Jesusen poza gauza pertsonala izan daiteke. Pertsona batena izan daiteke, eta hau salbatu egiten da. Bakean dago..., orain eta betiko, baina bera bakarrik. Pozaren bakardade honek ez du asaldatzen. Alderantziz: Hura da hain zuzen ere hautatua! Bere zorionean pozik igarotzen ditu borrokak, arrosa bat eskuan duela”.¹⁰

14. Honi dagokionez, de Lubac-ek frogatu ahal izan du, Eliz Gurasoen teologiaren luze-zabalean oinarrituz, salbamena elkarteko gauzatat hartu izan dela beti. *Hebrearrei eginiko Gutuna* bera ere “hiri” batez mintzo da (ik. 11, 10.16; 12, 22; 13, 14) eta, beraz, elkarteko salbamenaz. Eliz Gurasoek, era koherentean, bekaturia gizadiaren batasunaren hondamentzat jotzen dute, haustura eta zatiketatzat. Babel, hizkuntzen nahasketa eta urruntze lekua, bere sustraian bekatuaren ezaugarri bezala agertzen da. Horregatik, “berrerospena”, hain zuzen ere, munduko fededunen elkartean berriro bildurik gaudeneko batasuna berrezartzea bezala agertzen da. Ez dugu, hemen, itxaropenaren elkarteko izaera adierazten duten testu guztiez aritu beharrik. Jo dezagun aurrera *Probari eginiko Gutunarekin*. Agustin errealitate ezezagun hau pixka bat azaltzen saiatzen da, bila gabiltzana eta badela dakiguna. Abiapuntua “bizitza dohatsua [zorionsua]” espresioa da. Gero, 144 [143], 15 salmoa aipatzen du: “Zorionekoa Jauna Jainko duen herria!”. Eta honela jarraitzen du: “Herri honetako partaide izan eta Jainkoarekin betiko bizi izatera iristeko [...], ‘bihotz garbitik, Kontzientzia onetik eta itxurakeriarik gabeko sinesmenetik datorren maitasuna indartzea’ (1 Tm 1, 5) du helburu aginduak”.¹¹ Egiazko bizitza honek,

¹⁰ Jean Giono, *Les vraies richesses* (1936), Préface, Paris 1992, pp. 18-20; cf. Henri de Lubac, *Catholicisme. Aspects sociaux du dogme*, Paris 1983, p. VII.

¹¹Ep. 130 *Ad Probam* 13, 24: CSEL 44, 67.

–harantz baitoaz behin eta berriro gure ahaleginak– “herri” batean existentzialki bat eginda egotea eskatzen du eta pertsona bakoitzarentzat “gu” honen barruan soilik gauzatu daiteke. Horregatik eskatzen du “neure baitan” itxita egotetik irtetea, subjektu unibertsal honetara irekitzeak soilik irekitzen baitu begirada ere pozaren iturrirantz, maitasunerantz, Jainkoaganantz.

15. Elkarteari begira dagoen “bizitza dohatsuaren” ikusmolde hau, egiaz, oraingo mundu honetaz harat dagoenari dagokio, baina hain zuzen ere horregatik, badu zerikusia mundua hainbat eratarata, historiako guneak eta honek uzten dituen nahiz ez dituen aukeren arabera, eraikitzearekin. Agustinen garaian, herri berrien sortzeak, elkarrekin juridikoan zuzenbidea eta bizitza nolabait bermaturik zituen munduaren kohesioa arriskuan jartzen zuenean, elkarrekiko bizitzaren eta bakearen benetako oinarriak sendotzera jo zen mundu aldakor hartan bizitzen jarraitu ahal izateko. Baina, adibide bat jartzearen, begira dezagun zenbait aldetatik adierazgarria den Erdi Aroko une bat. Gehienek ustetan, monasterioak mundutik ihes egiteko guneak ziren (« *contemptus mundi* »), munduarekiko erantzukizuna alde batera utziz salbamena bakarka bilatzeko guneak. Bernardo Clairvauxkoak, bere Ordena eraberrituarekin hainbeste gazte monasterioetara eraman zituenak, guztiz bestelako ikuskera zuen. Harentzat, monjeek Eliza osoari begira eta, beraz, munduari begira ere bete beharreko zeregin bat dute. Eta, irudi ugariaren bidez, argitzen du monjeek Elizaren organismo osoarekin, are gehiago, gizadiarekin, duten erantzukizuna; Errupin aizunaren hitzak ezartzen dizkie: “Gizadiak gutxi batzuei esker irauten du; haiek desagertuz gero, mundua galdu egingo litzateke”.¹² Kontenplatiboak lur-langile, laborari, bihurtu behar dute, dio; *contemplantes* eta *laborantes* darabiltza berak. Lanaren bikaintasuna, kristautasunak judaismotik jaso zuena, jadanik ageri da Agustin eta Benitoren erregeletan. Bernardok kontzeptu hau berriro dakar aurrera. Monasterioetan sartzen ziren gazte aristo-

¹² *Sententiae*, III, 118 : *CCL* 6/2, 215.

kratek eskulana egin behar zuten. Egia esan, Bernardok argi esaten du monasterioak ere ezin dezakeela Paradisua berriro ezarri, baina, lur-lantze praktiko eta espiritualaren gune den aldetik, Paradisu berria prestatu behar duela. Oihan basatiaren arlo bat lur emankor bihurtzen da harrokeriaren zuhaitzak mozten direnean, modu basatian ariman hazten den oro sus-traitik atera eta horrela prestatzen da lur-saila gorputz eta arimarentzat ogia izan dadin.¹³ Ez ote dugu ikusteko aukerarik izan, hain zuzen ere oraingo historian, arimak basati bihurtzen diren lekuan ez dagoela munduko egitura ona eraikitzerik?

Kristau fedearen, itxaropenaren, aldaketa garai berrian

16. Nola garatu da Jesusen mezua guttiz indibidualista eta pertsona banakoari soilik zuzendua delako ideia hori? Nola interpretatu behar da “arimaren salbamena” oro har gauzekiko erantzukizunei ihes egitea bezala eta, beraz, kristautasunaren programa besteei ukatzen zaien salbamena berekoikeriaz bilatzea bezala? Galdera honen erantzuna aurkitzeko, garai berriko funtsezko gauzei begiratu behar diegu. Hauek argi bereziaz ikusten dira Francis Baconengan. Argi dago –Amerikaren aurkikundeari esker eta aurrerabidea ekarri duten teknikaren konkista berriei esker– aro berri bat sortu dela. Baina, zertan oinarritzen da aro-aldaketa hau? Esperimentuaren eta metodoaren arteko korrelazio berrian oinarritzen da, horrek egiten baitu gizakia natura beronen legeen arabera interpretatzeko gai, horrela azkenik “artearen garaipena lortu ahal izateko naturaren gain” (*victoria cursus artis super naturam*).¹⁴ Berritasuna –Baconen ikuskeraren arabera– zientzia eta praxiaren arteko korrelazio berri batean datza. Hemendik teologiaren klabearen egiten da gero aplikazioa: zientzia eta praxiaren arteko korrelazio berri honek esan nahiko luke, berriro ezarriko litzatekeela kreazioaren gaineko nagusitasuna, Jainkoak gizakiari eman ziona eta jatorrizko bekatuagatik galdu zena.¹⁵

¹³ Ik. *ibid.*, III, 71: CCL 6/2,107-108.

¹⁴ *Novum Organum* I, 117.

¹⁵ Ik. *ibid.*, I, 129.

17. Baieztapen hauek irakurri eta arretaz gogoeta egiten duenak, haietan urrats harrigarria aitortzen du: une hartara arte, gizakiak lurreko paradisutik kanporatua izatean galdua berreskuratzea, Jesu Kristogan zen fedetik itxaroten zen, eta horretan ikusten zen “berrerospena”. Orain, “berrerospen” hau, galdutako “paradisua” berriro ezartzea, ez da jadanik fedetik itxaroten, aurkitu berri den zientzia eta praxiaren korrelazioetik baizik. Honekin ez da fedea ukatzen, baina beste maila batera baztertzen da –gauza erabat pribatu eta munduz kanpoko mailara– eta era berean, nolabait esateko, garrantzi gabeko bihurtzen da munduarentzat. Ikuskera programatiko honek erabaki du garai berrietako prozesua eta oraingo fedearen krisian ere eragina izan du; bere alde konkretuetan kristau-itxaropenaren krisia da. Horregatik, Baconengan forma berri bat ere hartzen du. Orain honela deritzo: fedea aurrerapenean. Izan ere, Baconentzat, argi dago hasi berri ziren aurkikuntzak eta asmakizunak hasiera besterik ez direla; zientzia eta praxiaren arteko sinergiari esker, aurkikuntza berri-berriak etorriko direla, mundu berri-berria sortuko dela, gizakiaren erreinua.¹⁶ Honen arabera, berberak taxutu zuen aurrez ikus daitezkeen asmakizunen zirriborroa, aireplanoa eta itsaspekoa horien artean sartuz. Aurrerapenaren ideologiaren geroko garapenean, giza ahalmenek agerian aurrera egiteak dakarren poza, aurrerapenean jarri den fedearen etengabeko berrespena da.

18. Aldi berean bi kategoria dira, gero eta gehiago aurrerapenaren erdigunean daudenak: arrazoaia eta askatasuna. Aurrerapena, handituz doan arrazoiaren nagusitasuna da batez ere, eta arrazoi hau, bistan da, ongiaren eta ongirako boteretzat hartzen da. Aurrerapena menpetasun guztiak gainditzea da, askatasun osorantz jotzea da. Askatasuna ere promestzat hartzen da; hura lortzean gizakiak bere osotasuna lortzen du. Bi kontzeptuotan –askatasuna eta arrazoaia– alde politikoa dago. Izan ere, arrazoiaren nagusitasuna gizakia libre izatera iristeko baldintza

¹⁶ Ik. *New Atlantis*.

berri bezala ikusten da. Hala ere, arrazoiaren eta askatasunaren erreinu honen baldintza politikoak, lehenengoetan, ez daude ongi zehaztuak. Arrazoiak eta askatasunak, berez onak direlako, bermatzen dutela dirudi giza komunitate berri perfektua. Baina oinarrizko bi kontzeptuotan –"arrazoia" eta "askatasuna"– pentsamendua beti dago, esan gabe baina, fedearen eta Elizaren loturen aurka, eta baita garai hartako Estatuko legediaren loturen aurka ere. Bi kontzeptuok beren baitan daramate, bada, leher eragiteko indar izugarria duen iraultza-ahalmena.

19. Itxaropen hau politikoki gauzaten deneko oinarrizko bi etapari begiratuko diegu laburki, kristau-itxaropenaren biderako, hura ongi ulertzeko eta haren iraupenerako, oso garrantzitsua baita. Lehenik Frantziako Iraultza dago, arrazoiaren eta askatasunaren nagusitasuna, orain era politikoan noski, ezarri nahian. Argien Europak, lehenengoetan, liluraturik ikusi ditu gertakari hauek, baina hauen bilakaeraren aurrean modu berri batez gogoeta egin behar izan du arrazoiari eta askatasunari buruz. Frantziako gertakariak eta bi fase horien eragina argitzeko, garrantzitsuak dira Immanuel Kanten bi idazki, gertakari hauetaz gogoeta egiten baitu. 1792an obra hau idatzi zuen: "*Der Sieg des guten Prinzips über das böse und die Gründung eines Reichs Gottes auf Erden*" (Printzipio onaren garaipena txarraren gain eta lurrean Jainkoaren erreinua ezartzea). Hau dio idazki horretan: "Eliz fedetik apurka-apurka erlijio-fede hutsa erabat nagusi denera pasatzea da Jainkoaren erreinura hurbiltzea".¹⁷ Iraultzek bizkortu egin dezaketela eliz fedetik arrazoiaren federa igarotzeko denbora ere badiosku. Jesusek agertu digun "Jainkoaren erreinuak", hemen, definizio berri bat hartzen du eta baita presentzia berri bat ere; nolabait esateko, "berehalako itxarote" modu berri bat dago: "Eliz fedea" gainditua eta "erlijio-fedeaz" ordezkaturia den tokira iristen da "Jainkoaren erreinua", hau da, fe-

¹⁷ In *Werke* IV: W. Weischedel, ed. (1956), 777. *Boni Principii Victoria* izenburua duen obrari dagozkion orrialdeak, Kant-ek 1793an argitaratu zuen *Die Religion innerhalb der Grenzen der blossen Vernunft* (Erljioa arrazoi hutsaren muga barruan) obraren hirugarren kapitulua osatzen dutenak.

de arrazionalaren bidez. 1795ean, “*Das Ende aller Dinge*” (Gauza guztien amaiera) izenburua duen obran, bestelako irudia ageri da. Orain, Kantek, kontuan hartzen du gauza guztien berezko edo naturaren araberrako amaierarekin batera, naturaz kontrakoa edo amaiera txarra ere gerta daitekeela. Honetaz hau idazten du: “Kristautasuna halako batean maitagarri gertatuko ez balitz, gizakien artean nagusi den pentsamenduak hura arbuia eta haren aurka egin beharko luke; eta antikristoak [...] bere agintaldia hasiko luke, laburra bada ere (segur aski beldurrean eta egoismoan oinarritua). Horren ondoren, kristautasunaren destinoa erlijio unibertuala izatea bada ere, praktikan zoriak hala izaten lagundu ez diolako, gerta daiteke, moral aldetik, gauza guztien hondamena (amaiera txarra)”.¹⁸

20. XVIII. mendean aurrerapenean ezarritako fedea zegoen giza itxaropen berri bat bezala, eta arrazoia eta askatasuna hartzen ziren itxaropen-bidean jarraitu beharreko izar gidaritzat. Hala ere, garapen teknikoa gero eta lasterrago aurrera joateak eta horren ondorioz etorri zen industrializazioak gizarteko egoera berri-berria sortu zuten: industriako langileen klasea sortu zen, “industriako langileria” deitua; klase honen bizimodu ikaragarria modu lazgarrian agertu zuen Friedrich Engelsek 1845ean. Irakurlearentzat argi zegoen: horrek ezin zuen horrela jarraitu, ezinbestekoa zen aldaketa. Baina aldaketak asaldura eta gizarte burgesaren egitura oro iraultzea ekarriko zituen. 1789ko iraultza burgesaren ondoren, iraultza berri baten ordua iritsi zen, proletarioen iraultzarena: aurrerapena ezin zen gauzatu era linealean pauso txikiak emanez. Jauzi iraultzailea egin behar zen. Karl Marx-ek une hartako deia jaso zuen eta, hizkuntza eta pentsamendu indartsuaz, urrats berri eta, berak uste zuenez, behin betiko hau bideratzen saiatu zen salbamenerantz, Kant-ek “Jainkoaren erreinua” deitu zionerantz. Beste munduko egia desageretzean, mundu honetako egia ezarri nahiko zen orain. Zeruko kritika lurreko kritika bihurtzen da, teologiaren kritika politika-

¹⁸I. Kant, *Das Ende aller Dinge: Werke* IV, W. Weischedel, ed. (1964), 190.

ren kritika. Onenerantz, behin betiko ona den mundurantz, eginiko aurrerakadak ez datoz jadanik zientziatik, politikatik baizik; zientziaren arabera pentsaturiko politikatik; historiaren eta gizar-tearen egiturak zeintzuk diren dakien, eta horrela iraultzarako bidea, gauza guztiak aldatzeko bidea, markatzen duen politikatik. Zehaztasun handiz, alde bakarretik eta partzialki bada ere, deskribatu du Marx-ek bere garaiko egoera eta analisi-gaitasun sakonez argitu ditu iraultzarako bideak, eta ez teorian soilik: Egitez, 1848an sorturiko partidu komunistaren manifestuarekin eman zion hasiera iraultzari. Haren promesak, eginiko analisi zorrotzei eta erabateko aldaketarako seinalaturiko tresna argiegi esker, izan zuen lilurarik eta badu gaur egun ere oraindik. Gero-ago, errotik ezarri zen iraultza Errusian.

21. Baina, garaipenarekin batera, Marx-en oinarritzko okerra ere agerian jarri zen. Berak zehazki adierazi zuen nola lortu egoeraren erabateko aldaketa. Baina ez zigun esan nola jokatu gero. Klase menderatzailea desjabetzeaz, botere politikoa erortzeaz eta produkzio bideak gizartearen esku uzteaz, Jerusalem berria ezarriko zela uste zuen. Izan ere, orduan kontraesan guztiak desegingo ziren, azkenik gizakiak eta munduak argia ikusiko zuten berengan. Orduan guztia berez-berez joango zen bide zuzenetik, guztia guztiena izango zelako eta guztiek bata bestearentzat hobereña nahi izango zutelako. Horrela, iraultzak arrakasta izan ondoren, gauza batez ohartu zen Lenin: maisuaren idazkietan ez zegoela nola jokatu erakusten zuen inolako adierazpenik. Beharrezkotzat jotzen zuen tarteko faseaz, proletarioen diktaduraz, bai mintzatu zen, hala ere bigarren une batean berez erorkorra zela frogatuko zen hartaz. “Tarteko fase” hau ongi ezagutzen dugu eta badakigu zein izan den horren geroko garapena ere: mundu sanoa sortu ordez, hondamen ikaragarria utzi du bere ondoren. Marx-en okerra ez dago mundu berrirako beharrezko bideak ez taxutzean; mundu berri horretan, izan ere, ez legoke haien beharrik. Horretaz ezer ez esatea beraren planteamenduaren ondorio logikoa besterik ez da. Haren okerra sakonago dago. Gizakia beti gizaki dela ahaztu du. Gizakia ahaztu du, gizakiaren askatasu-

na ahaztu du. Ahaztu egin du askatasuna beti dela askatasuna, baita txarrerako ere. Ekonomiaren arazoa konpontzean, guztia konpondua geldituko zela uste zuen. Haren benetako okerra materialismoa da: izan ere, gizakia ez da baldintza ekonomikoen ondorio hutsa eta ez dago kanpotik soilik sendatzerik, bere aldeko baldintza ekonomikoak sortuz.

22. Beraz, berriro ere galdera honen aurrean gaude: Zer itxaron genezake? Aro berriaren autokritika egin beharra dago kristautasunarekin eta honek itxaropenaz duen ikusmoldearekin el-karrizketan. Elkarrizketa honetan, kristauek, beren ezagutza eta esperientzien inguruan, berriro ikasi behar dute egiaz zertan datzan beren itxaropena, zer eskaini behar dioten munduari eta, aitzitik, zer ezin dioten eskaini. Aro berriaren autokritika honetan oraingo kristautasunaren autokritika ere sartu beharra dago, bere sustraietatik abiatu bere burua beti ulertzen ikasi behar duena. Honetaz ohar bat egiten saia gaitezke soilik hemen. Lehen-lehenik hau galdetu behar da: Zer esan nahi du, egiaz, "aurrerapenak"; zer agintzen du eta zer ez du agintzen? XIX. mendean kritikatu izan zen aurrerapenean jarritako fedea. XX. mendean, Theodor W. Adornok zorrozki adierazi zuen aurrerapenean jarritako fedea sorrarazten zion zalantza: aurrerapena, hurbiletik ikusita, habailatik bonba nagusira doan aurrerapena litzateke. Dena dela, hau ezkutatu behar ez den aurrerapenaren alde bat da, izatez. Beste era batera esanda: aurrerapenaren anbiguotasuna agerikoa da. Ezbairik gabe, onerako aukera berriak dakartza, baina txarrerako ere egundoko aukerak irekitzen ditu, lehenago ez zeudenak. Gu guztiok izan gara lekuko aurrerapena, okerreko eskuetan, nola bihur daitezkeen, eta bihurtu ere egin den egitez, gaitzerako aurrerapen ikaragarria. Aurrerapen teknikoak gizakiaren formazio etikoarekin, gizakia barrutik hazte-arekin batera ez badoa, (ik. *Ef* 3, 16; *2 Co* 4, 16), ez da aurrerapena, gizakiarentzat eta munduarentzat mehatxua baizik.

23. Gai nagusiei, "arrazoiari" eta "askatasunari" dagokienez, hemen hauekin zerikusia duten arazoak seinala daitezke soilik.

Egia esan, arrazoa Jainkoak gizakiari eman dion dohain handia da, eta arrazoiak irrazionaltasunaren gain garaipena lortzea kristau-fedearen helburua ere bada. Baina noiz nagusitzen da, egiaz, arrazoa? Jainkoagandik urruntzean? Jainkoarentzat arrazoa itsu bihurtzen denean? Boterearen eta egintzaren arrazoa, hor al dago arrazoi osoa? Aurrerapenak, benetan aurrerapen izateko, gizadiaren hazkunde moralala behar badu, orduan boterearen eta egintzaren arrazoiak ere premia berarekin integratu behar du, arrazoa fedearen indar salbatzaileetara, ongiaren eta gaizkiaren arteko bereizketara irekiz. Horrela soilik bihurtuko da egiaz giza arrazoi. Borondateari bidea markatzeko gai bada, bihurtuko da soilik giza arrazoi, eta hori arrazoiak bere buruaz haratago begiratzen baldin badu egin ahal izango du soilik. Bestela, gizakiaren egoera, alde batetik gaitasun materialaren artean desorekan eta bestetik bihotzaren bereizmenik gabe, bere buruarentzat eta kreazioarentzat mehatxu bihurtzen da. Horregatik, askatasunari buruz ari garela, gogoan izan behar da giza askatasunak hainbat askatasun lehian izatea eskatzen duela. Hala ere, hau ezin da lortu, gure askatasunaren oinarri eta jomuga den neurriaren irizpide komun eta berezkoak zehaztua ez bada. Esan dezagun orain argi: gizakiak Jainkoa behar du, bestela itxaropenik gabe gelditzen da. Aro berriaren garapena ikusi ondoren, hasieran aipaturiko san Pauloren adierazpena (*Ef* 2, 12) oso errealista eta egiazkoa dela frogatzen da. Beraz, ez dago zalantzarik, Jainkoa gabe ezarritako “Jainkoaren erreinu” horrek –gizakiarena soilik den erreinuak– Kant-ek deskribatzen digun gauza guztien amaiera txarra ekarriko duela ezinbestean: Orain arte hala ikusi dugu eta hala ikusiz jarraituko dugu behin eta berriro. Baina era berean ez dago zalantzarik, Jainkoa egiaz giza arazoetan sartzan dela, ez bakarrik guk hala pentsatzen dugunean, baita Berbera gure bidera irteten denean eta mintzatzen zaigunean ere. Horregatik arrazoiak fedea behar du berbera izatera iristeko: arrazoiak eta fedea elkarren beharra dute beren egiazko izaera eta misioa gauzatzeko.

Kristau-itxaropenaren egiazko itxura

24. Galde diezaiogun berriro geure buruei: zer itxaron deza-kegu? Eta zer ez dezakegu itxaron? Lehenik kontuan izan behar dugu, aurrerapen metatzailea gauza materialetan egin daitekeela soilik. Hemen, materiaren egituren ezagutza progresiboan, eta egunetik egunera egiten diren asmakizun handiagoei dagokienez, aurrerapen etengabea dago argi eta garbi, natura gero eta gehiago menderatzeko bidean. Kontzientzia etikoaren eta erabaki moralaren arloan, ordea, ez dago horrelako gehitzerik, gizakiaren askatasuna beti delako berria eta erabakiak beti berriro hartu behar dituelako. Erabakiak ez dituzte hartzen bestek gure orde; hala balitz, izan ere, ez ginateke libre izango. Askatasunak, funtsezko erabakietan, gizaki bakoitza, belaunaldi bakoitza, berriro hastea eskatzen du. Egia da, belaunaldi berriek aurretik joan direnen ezagutza eta esperientzietatik abiatuz eraiki dezaketela, eta baita gizadi osoaren altxor moralaz baliatu ere. Baina hori guztiori arbuia ere egin dezakete, hori ez baita asmakizun materialak bezain begi-bistakoa. Gizadiaren altxor morala ez dago, erabiltzen diren tresnak bezain eskura; askatasunerako dei bezalakoa dago eta hartarako aukera. Baina honek esan nahi du:

a) Gure gauzak zuzen egotea, munduaren ongizate morala, ezin daitezkeela egundo ere bermatu egituren bidez soilik, hauek oso baliokoak badira ere. Aipaturiko egitura horiek garrantzitsuak ez eze, beharrezkoak ere badira; hala ere, ezin dute bazterrean utzi eta ez dute utzi behar ere gizakiaren askatasuna. Egiturarik onenek ere elkartean konbentzimendu biziak daudenean funtzionatzen dute soilik, gizakiak elkarteko ordenari libreki men eginarazteko gai diren konbentzimendu biziak daudenean. Askatasunak konbentzimendua behar du; konbentzimendu hori berez ez da sortzen; lortu egin behar da behin eta berriro elkarte gisa.

b) Gizakiak beti aske izaten jarraitzen duenez gero eta askatasun hau betiere ahula denez gero, mundu honetan ongia ez da sekula ere bermaturik izango. Betiko izango den mun-

durik hoberena agintzen duenak, promes faltsua egiten du, giza askatasuna ez baitu kontuan hartzen. Askatasuna behin eta berriro lortu behar da onerako. Ongiari libreki men egitea ez da berezko gauza. Munduaren halako izaera bat –izaera ona– behin betiko ezarriko luketen egiturak baleude, ukatu egingo litzateke gizakiaren askatasuna, eta horrexegatik, azken batean, ez lirateke inola ere egitura onak izango.

25. Esandakoaren ondorioa da, giza errealitateentzat ordenamendu zuzenen bilaketa, beti berria eta beti neketsua, belaunaldi bakoitzaren zeregina dela; sekula ere ezin daitekeela amaitutzat jo. Hala ere, belaunaldi bakoitzak bere ekarpena egin behar du askatasunaren eta ongiaren ordenamendu sinesgarriak ezartzeko, ondorengo belaunaldiari giza askatasuna zuzen erabiltzeko orientabide gisa lagungarri izan dakizkion eta horrela, gizakiak dituen mugen barruan, nolabaiteko bermea eman dezaten etorkizunerako. Beste era batera esanda: egitura onek lagundu egiten dute, baina haiek bakarrik ez dira aski. Gizakia ezin da berrerosi kanpotik bakarrik. Francis Bacon eta honengan inspiratu zen aro berriko pentsamenduaren joera jarraitzen dutenak oker zeuden, gizakia zientziaren bidez berrerosia izango zela pentsatzean. Horrelako usteekin gehiegi eskatzen zaio zientziari; ustezko itxaropen hau engainagarria da. Zientziak asko egin dezake mundua eta gizadia gizatiarrago egiteko. Baina bere kanpoko indarrak horretarantz bideraturik ez badaude, gizakia eta mundua desegin ere egin ditzake. Bestalde, zientziak mundua urratsez urrats egituratzean izan duen arrakastaren aurrean, kristautasun modernoak, gehienbat, pertsona banakoarengan eta beronen salbamenean soilik jarri duela arreta adierazi behar dugu. Honekin itxaropenaren eremua murriztu egin da eta, gainera, ez du behar bezain ongi ezagutu bere egitekoaren handitasuna ere; dena dela, gizakiaren formaziorako eta ahulei eta sufritzen dutenei laguntzeko eginez-eginez joan dena garrantzitsua da.

26. Ez da zientzia gizakia berrerosten duena. Gizakia maitasunak berrerosten du. Horrek mundu-barnerako bertarako ere

balio du. Norbaitek bere bizitzan maitasun handia sentitzen duenean, “berreroste-une” bat izaten da hori, bere izateari zentzu berria ematen diona. Baina era berean laster ohartzen da, eman zaion maitasun horrek, berak bakarrik, ez diola bere bizitzako arazoa konpontzen. Maitasun hauskorra da. Heriotzaz desegina izan daiteke. Gizakiak inongo baldintzapean ez den maitasuna behar du. Hau esatera daraman ziurtasuna behar du: “Badakit ziur, ez herio eta ez bizi, ez aingeru eta ez goiko beste indar, ez oraingo eta ez geroko, ez inolako botere, ez ortziko eta ez lur azpiko indar, ez inolako beste izakik, ez gaituela aldenduko Jainkoak Jesu Kristo gure Jaunarengan agertu digun maitasunetik” (*Erm* 8, 38-39). Maitasun absolutu hau bere ziurtasunarekin bada, orduan –orduan bakarrik– izango da gizakia “berrerosia”, bere kasuan gertatzen dena gertatzen dela. Hori da ulertu behar dena, Jesu Kristok “berrerosi” gaituela esaten dugunean. Haren bitartez ziur gaude Jainkoagan, munduaren urrutiko “kausa lehena” ez den Jainkoagan, haren Seme bakarra gizon egin zelako; horregatik Hartaz esan dezake bakoitzak: “Oraingo neure giza bizitza, maite izan ninduen eta bere bizia nire alde eskaini zuen Jainkoaren Semearenganako sinesmenean oinarriturik bizi dut” (*Ga* 2, 20).

27. Honen haritik, egia da Jainkoa ezagutzen ez duena, gauza askotan itxaropena jarrita egon arren, azken batean itxaropenik gabe dagoela, bizitza osoari eusten dion itxaropen handi hura gabe (ik. *Ef* 2, 12). Gizakiaren egiazko itxaropena, etsipen guztien gainetik irauten duen itxaropen handia, Jainkoa izan daiteke soilik, maite izan gaituen eta “azken-azkeneraino”, “dena betetzeraino” maitatzen jarraitzen duen Jainkoa (ik. *Jn* 13, 1; 19, 30). Maitasunak ukitua izan dena, zehazki hitz eginda, benetako “bizitza” zer izango litzatekeen sumatzen hasten da. Bataioko errituan aurkitu dugun itxaropen hitzak zer esan nahi duen sumatzen hasten da: fedetik “betiko bizia” itxaroten da, benetako bizia, erabat eta mehatxurik gabe, bete-betean bizia dena. Bera bizia eta bizia ugari izan dezagun etorri zela esan zigun Jesusek (ik. *Jn* 10, 10), azaldu zigun zer esan nahi duen

“biziak”: “Honetan azaltzen da betiko bizia: zu, egiazko Jainko bakar hori, eta zuk bidalitako Jesus Mesias ezagutzean” (*Jn* 17, 3). Bere egiazko esanahian bizia ez du izaten batek beretzat soilik, ezta beragatik ere: bizia erlazioa da. Eta bizi osoa biziaren iturri den Harekiko erlazioa da. Hiltzen ez den Harekin, Bizia bera eta Maitasuna bera den Harekin erlazioan baldin bagaude, orduan bizian gaude. Orduan “biziko gara”.

28. Baina orain galdera hau sortzen da: honela, ez ote gara berriro erori salbamenaren banakako izaieran? Niretzat bakarrik den itxaropenean eta, gainera, besteak ahanzten direlako eta kontuan hartzen ez direlako egiazkoa ez den itxaropenean? Ez. Jainkoarekiko harremana Jesusekin bat egitearen bidez ezartzen da, geuk bakarrik eta geure indar hutsez ezin baitugu lortu. Bestalde, Jesusekiko harremana bere burua guztien salbamenerako ordainsaritzat eman zuen (ik. *1 Tm* 2, 6) Harekiko harremana da. Jesu Kristorekin bat eginda egoteak “guztientzat” den haren izatean partaide izatea dakar. Besteen alde egitera behartzen gaitu, baina Harekin bat eginda egonez soilik irits gaitezke egiaz besteentzat, guztientzat izatera. Hari honetan, greziar Eliz Irakasle handia, san Maximo Aitorlea († 662) aipatu nahi nuke; honek, lehenik, Jainkoa ezagutzearen eta maitatzearen gaintik ezer ez jartzeko aholkua ematen du, baina gero, berehala, aplikazio oso praktikoak dakartza: “Jainkoa maite duenak ezin du dirua beretzat gorde, ‘Jainkoak nahi duenez’ [...], Jainkoa imitatuz, bereizkeriarik gabe, banatu baidzik”.¹⁹ Jainkoaren maitasunetik dator, besteei begira, Jainkoaren justizian eta ontasunean esku-hartzea; Jainkoa maitatzeak, jabetza guztiari eta gauza material guztiei dagokienez, barneko askatasuna eskatzen du: Jainkoaren maitasuna besteekiko erantzukizunean erakusten da.²⁰ San Agustinen bizitzan era hunkigarrian ageri da Jainkoaren maitasunaren eta gizakiekiko erantzukizunaren arteko lotura hori. Kristautasunera konbertitu ondoren, bere antzeko ideiak zituzten zenbait adiskiderek

¹⁹ *Capita de charitate, Centuria* 1, cap 1: PG 90, 965.

²⁰ Ik. *ibid.*: PG 90, 962-966.

batera, Jainkoaren hitzari eta betiereko gauzei guztiz emandako biziera egin nahi izan zuen. Kristau-balioekin hezurmamitu nahi izan zuen filosofia greko handiak deskribatu zuen kontenplazio-bizitzaren ideala, horrela “alderik onena” aukeratuz (*Lk* 10, 42). Baina gauzak beste era batera gertatu ziren. Hiponako portu-hirian igandeko Mezan esku hartzean, Apezpikuak aparte hartu zuen, jendetzaren artetik irtenarazirik, eta ordena santua hartzera behartu zuen hiri hartan apaiz-lana egiteko. Gerora, atzerantz begiratuz, *Aitorkizunak* liburuan hau idazten du une hartaz: “Neure bekatuengatik eta neure miserien pisu eskerगतatik izuturik, neure baitan gogoetari eman nion eta bakardadera ihes egitea erabaki nuen. Baina zuk eragotzi zenidan hori betetzea eta lasaitu ninduzun, esanez: ‘Kristo denengatik hil da, bizi direnak ez daitezten berentzat bizi, beraiengatik hil den harentzat baizik’ (ik. *2 Ko* 5, 15)”.²¹ Kristo denengatik hil zen. Harentzat bizi izateak bere burua haren “izaeran besteentzat” moldatzen uztea esan nahi du.

29. Hau bizitza berri-berria izan zen Agustinentzat. Honela deskribatu zuen behin bere eguneroko bizitza: “Diziplinarik ga-beak zuzendu, adoregabeak sendotu, ahulei eutsi, aurkariei beren usteak gezurtatu, asmo gaiztokoetatik gorde, ezjakinei irakatsi, geldoak akuilatu, liskartiak mantsotu, handizaleei neurria ezarri, etsita daudenei gogo berotu, lehiakideak baretu, behartsuei lagundu, zapalduak askatu, zintzoei ongi ari direla adierazi, gaiztoen zerak onez eraman eta [ai, nire errukarria!] guztiak maitatu”.²² “Ebanjelioa da beldurra ematen didana”,²³ geure buruari begira bizitzen uzten ez digun eta gu guztion itxaropena transmititzera bultzatzen gaituen beldur onuragarria. Izatez, hau zen, izan ere, Agustinen asmoa: Erromako inperioa egoera latzean zen; Afrika erromatarra ere mehatxupean zuen eta, Agustinen bizitzaren amaieran, sunsitzera iritsi zen; egoera horretan,

²¹ *Conf.* X 43, 70: *CSEL* 33, 279.

²² *Sermo* 340, 3: *PL* 38, 1484; cf. F. van der Meer, *Augustinus der Seelsorger*, (1951), 318.

²³ *Sermo* 339, 4: *PL* 38, 1481.

Agustinek itxaropena helarazi nahi zien, fedetik sortzen zitzaion itxaropena; bere izaera barnekoiaz kontrastean, fedetik zetorkion itxaropen horrek, hiria berreraikitzen kementsu eta indar guztiekin esku hartzera eraman zuen. *Aitorbizunak* liburuko kapitulu berean, “guztien aldeko” konpromisoaren arrazoi erabakigarria ikusi berri dugun kapitulu berean, beste hau ere badio: “Kristo gure alde ari da; bestela etsipenean eroriko nintzateke. Nire minak ugari eta handiak direlako; bai, ugari eta handiak dira, baina are handiagoa da zure sendagaia. Zure Hitza haragi egin eta gure artean bizi ez balitz, gizakien artetik urruti zegoela pentsatuko genukeen eta geure buruagan itxaropena galduko”.²⁴ Bere itxaropenari esker, Agustin jende apalaren eta hiriaren aldeko lanean aritu zen; bere goi-maila espiritualari uko egirik, apalki predikatu eta jokatu zuen jende apalarentzat.

30. Laburbil dezagun gure gogoetetan orain arte azaldu dena. Bere bizitzan zehar gizakiak itxaropen ugari izan ohi ditu, handiagoak edo txikiagoak, itxaropen desberdinak bere bizitzaren arabera. Batzuetan, halako itxaropen batek guztiz asetzen duela dirudi eta ez duela beste itxaropenik behar. Gaztetan maitasun handiaren itxaropena izan daiteke, guztiz aseko duen maitasunaren itxaropena; lanbidean halako maila lortzeko itxaropena, bere bizitzan erabakigarria izango duen arrakasta bat edo besteren itxaropena. Hala ere, itxaropen hauek betetzen direnean, argi ikusten da hori, egiaz, ez zela guztia. Argi dago, gizakiak haratago joango den itxaropena behar duela. Bistakoa da amaigabea den zerbaitekin soilik izan dezakeela aski, inoiz erdietsi ahal duena baino betiere gehiago izango dena. Honela, aro berrian mundu perfektu bat ezartzeko itxaropena garatu da, zientziari esker eta zientzian oinarrituriko politikari esker lortuko litzatekeena. Hortaz, Jainkoaren erreinuaren itxaropen biblikoa gizakiaren erreinuaren itxaropenak ordezkaturiko luke eta, orduan, mundu hobe baten itxaropena izango litzateke egiazko “Jainkoaren erreinua”. Azkenik,

²⁴ *Conf.* X, 43, 69: *CSEL* 33, 279.

itxaropen honek du itxaropen handi eta errealistaren itxura, gizakiak behar duen itxaropenarena. Hau izango litzateke –aldi batean– gizakiaren indar guztiak mugimenduan jartzeko gai; jomuga bikain honek ahalegin guztiak egitea merezi lukeela dirudi. Baina denbora igaro ahala, argi gelditu zen itxaropen hau urrunduz-urrunduz doala. Lehenik eta behin, itxaropen hau biharko gizon-emakumeentzat izan litekeela, agian, ikusi zen, baina ez niretzat. Eta itxaropen handia “guztientzakoa” bada ere –benetan, ezin naiteke zoriontsu izan besteen kontra edota besteak gabe– egia da, niri pertsonalki ez dagokidan itxaropena, ez dela benetako itxaropena. Era berean, argi dago itxaropen hau askatasunaren aurkakoa zela, giza errealitateen egoera belaunaldi bakoitzean, belaunaldi horretakoak diren gizon-emakumeek hartzen dituzten erabaki librean mende dagoelako. Dauden baldintzak eta egiturak direla-eta, haiei askatasuna ukatuko balitzaie, mundua, azken batean, ez litzateke ona izango, askatasunik gabeko mundua ezin baitaiteke inola ere ona izan. Honela, mundua hobetzeko etengabe saiatu beharra badago ere, biharko mundurik onena ezin daiteke izan gu geu asetzen gaituen itxaropenaren edukia. Honen arabera, beti dator galdera hau: Noiz da mundua “hobea”? Zerk egiten du mundua ona? Zer irizpide erabil daiteke ona dela esateko? Eta zer bidetatik erdiets daiteke “ontasun” hau?

31. Are gehiago: guk itxaropenak izan beharra dugu –handiagoak edo txikiagoak– egunero-egunero bidean eutsiko dituzten itxaropenak. Baina gainerako guztia gaindituko duen itxaropen handia gabe, beste haiek ez dira aski. Itxaropen handi hau Jainkoa besterik ezin daiteke izan, unibertsoa bere esku duen eta guk bakarrik lortu ezin duguna eskain eta eman diezagukeen Jainkoa. Izatez, dohain batez saritua izatea itxaropenaren parte bat da. Jainkoa da itxaropenaren oinarria; baina ez edozein jainko, giza aurpegia duen eta azken-azkeneraino, bakoitza eta gizadia bere osotasunean, maite izan gaituen Jainkoa baizik. Haren erreinua ez da irudimenekoa, sekula iristen ez den geroan kokatua dagoena; haren erreinua presente dago

Hura maitatua den lekuan eta haren maitasunak harrapatzen gaituen lekuan. Haren maitasunak ematen digu soilik egunetik egunera neurritasun osoan, itxaropenaren bultzada galdu gabe, irauteko ahalmena berez akastuna den munduan. Eta, era berean, haren maitasuna da guretzat, lauso artean ozta-ozta sumatzen duguna, baina, hala ere, geure izatearen barnean espero duguna badelako ziurtasuna, hau da, “egiazko” bizitza badelako ziurtasuna. Ideia hau hobeki zehazten saiatuko gara azken partean, itxaropenean eskolatzeko eta hura praktikatzeko zenbait “gunetan” arreta jarritz.

Itxaropenean eskolatzeko eta hura praktikatzeko “guneak”

I. Otoitza, itxaropenaren eskola

32. Itxaropenean eskolatzeko lehenbiziko eta funtsezko gunea otoitza da. Inork entzuten ez didanean ere Jainkoak entzuten dit. Inorekin hitz egin ezin dudanean, inori deitu ezin didanean ere, beti hitz egin nezake Jainkoarekin. Inork lagundu ezin badit ere –gizakiaren itxarote-ahalmena gainditzen duen premia edo itxaropena denean– Hark lagun diezadake.²⁵ Bakardaderik handienez neure burua ikus baneza ere...; erreza-tzen duena ez dago sekula ere guztiz bakarrik. Nguyen Van Thuan Kardinal ezin ahaztuzkoak kartzelan eginiko hamahiru urteak –haietatik bederatzi bakarturik– kontatuz, idazki zoragarria utzi digu: *Itxaropen-otoitzak*. Hamahiru urte kartzelan, itxura batean etsipenik beltzenez; egoera hartan Jainkoak berari entzutea, Hari hitz egin ahal izatea, itxaropen-indar gero eta handiagoa gertatu zen berarentzat, eta horrek, askatasuna lortu ondoren, mundu osoko gizon-emakumeentzat itxaropenaren lekuko izatera bultzatu zuen; bakardadeko gauetan ere itzaltzen ez den itxaropen handiaren lekuko izatera.

33. Agustinek era ederrean azaldu zuen otoitzaren eta itxaropenaren arteko barne-barneko lotura *San Joanen Leben Gu-*

²⁵ Ik. *Catechismus Catholicae Ecclesiae*, n. 2657

tunari buruzko homilia batean. Berak desirazko ekintza gisa definitzen du otoitza. Gizakia errealitate bikain baterako egina izan da, Jainkoarentzat berarentzat, Hark gainez egiteraino bete dezan. Baina haren bihotza txikiegia da ematen zaion errealitate hain handirako. Zabaldua izan behar du. “Jainkoak [dohaina] atzeratuz, desira zabaltzen du; desirarekin, arima zabaltzen du eta, zabalduz, [bere dohaina] hartzeko gai egiten du”. Agustin san Paulo Apostoluaz ari da, honek bere buruaz baitio, atzean gelditu denaz ahazturik, aurrera jotzen duela (ik. *Flp* 3, 13). Gero irudi eder bat erabiliko du giza bihotzaren zabaltzea eta prestatzea adierazteko. “Eman dezagun Jainkoak eztiz bete nahi zaituela [Jainkoaren gozotasun- eta ontasun-sinboloa]; ozpinez beterik bazaude, non sartuko duzu eztia?” Ontziak, hau da, bihotzak, lehenbizi zabaldua izan behar du eta gero garbitua: ozpina eta honen zaporea kendu behar dira. Horrek ahalegina eskatzen du, mingarria da, baina horrela lortuko da soilik gu eginak garen hartarako gai izatea.²⁶ Agustinek zuzenki Jainkoarekiko irekirik egoteaz hitz egiten badu ere, argi dago ozpinetik eta honen zaporetik askatzeko ahaleginean, gizakia ez bakarrik libre egiten dela Jainkoarentzat, baita zabaldu ere besteentzat. Izan ere, Jainkoaren seme-alaba bihurtuz soilik egon ahal izango gara guztion Aitarekin. Otoitz egiteak ez du esan nahi historiatik irten eta nork bere zorionaren txoko pribatura baztertu behar duenik. Otoitz modu egokia, Jainkoa hartzeko gai eta, hain zuzen ere horregatik, besteak hartzeko ere gai egiten gaituen barneko garbitze-prozesua da. Otoitzean gizakiak egiaz Jainkoari zer eska diezaiokeen ikasi behar du, zer den Jainkoaren duin. Besteen aurka ez errezatzen ikasi behar du. Une hartan nahi lituzkeen gauza azalekoak eta hutsalak ez dituela eskatu behar, horiek Jainkoagandik urruntzen duten itxaropen txikia baitira. Garbitu egin behar ditu bere nahi eta usteak. Bere burua engainatzeko erabiltzen dituen ezkutuko gezurretatik askatu beharra du: Jainkoak ikusten ditu, eta Jainkoarekin aurrez aurre jartzeak giza-

²⁶ Ik. *In 1 Joannis* 4, 6: *PL* 35, 2008s.

kia ere haiek aitortzera darama. “Nork ezagutu bere hutsegiteak? Aska nazazu oharkabeko erruetatik” dio erreguka salmogi-leak (19 [18], 13). Errua ez aitortzeak, errugabe naizelako irudipenak, ez nau errutik askatzen ez eta salbatzen ere, konzientziaren itsumena, neugan errua den bezalakoa aitortzeko gai ez izatea, neure errua delako. Jainkorik ez badago, gezur horietan ezkutatu beharko dut, agian, neure burua, inor ez baitago barka nazakeenik, inor ez baitago egiazko irizpidea ziurtatuko duenik. Jainkoarekin elkartzeak, ordea, nire konzientzia esnatzen du, neure burua zuritzeko bide izan ez dadin, ez eta neure buruaren eta baldintzatzen nauten neure ingurukoen ispilu ere, baizik eta bihur dadila Ontasuna bera denari entzuteko gai.

34. Otoitzak indar garbitzaile hori eragin dezan, alde bate-tik, oso pertsonala izan behar du, nire nia Jainkoaren, Jainko biziaren aurrez aurre jartzea. Baina, bestetik, Elizaren eta santuen otoitz handiek, liturgi otoitzak gidatua eta argitua izan behar du, Jaunak liturgi otoitzean irakasten baitigu etengabe behar den bezala errezatzen. Nguyen Van Thuan Kardinalak diosku Gogo-jardunetako bere liburuan, hainbat urte igaro zituela otoitz egin ezinik eta orduan berak gogor heldu ziola Elizaren otoitzari: Aitagureari, Agurmariari eta Liturgiako otoit-tzei.²⁷ Otoitzean ageriko otoitzaren eta otoitz pertsonalaren arteko lotura egon behar du beti. Horrela hitz egin diezaiokegu Jainkoari, eta horrela hitz egiten digu Jainkoak guri. Era honetara egingo dira gudan garbiketak eta haien bidez Jainkoa hartzeko gai bihurtuko gara eta gizakiei zerbitzatzeko aukerako. Honela egiten gara itxaropen handiaren gai eta besteentzat itxaropenaren zerbitzari bihurtzen gara. Eta itxaropen aktiboa da; harekin borrokatzen gara, gauzek “amaiera txarra” izan ez dezaten. Itxaropen aktiboa da, mundua Jainkoagana irekirik mantentzen dugun aldetik ere. Horrela iraun dezake soilik egiaz giza itxaropena izaten.

²⁷ Ik. *Testimoni della speranza*, Città Nuova, 2000, 156s.

II. Jardutea eta sufritzea itxaropenean eskolatzeko gune gisa

35. Gizakiaren jarduera serio eta zuzen oro itxaropena da jarduera-unean bertan. Hala da, geure itxaropenak, txikiagoak edo handiagoak, aurrera eramaten saiatzen garen aldetik; gure bizitzaren etorkizunerako garrantzizko egiteko honi edo beste-ari konponbidea aurkitzea: Geure ahaleginez laguntzea mundua pixka bat argitsuagoa eta gizatiarragoa izan dadin, eta honela etorkizunerantz ateak zabal daitezen. Baina geure bizitzan aurrera egiteko eta guztien etorkizunerako egiten dugun eguneroko ahaleginak nekatu egiten gaitu edota fanatismo bihur daiteke, itxaropen handiago haren argiak argiturik ez badago; itxaropen hori ezin baitezake desegin ez gauza txikietan izandako etsipenek, ez eta historian garrantzia duten porrotek ere. Une bakoitzean ahal dena baino gehiago ezin badugu itxaron eta aginte politiko eta ekonomikoa dutenek eskaintzen digutena baino gehiago, gure bizitza laster eroriko da etsipenean. Oso garrantzitsua da oraindik ere itxaron dezakedala jakitea, itxura batean nire bizitzarako edota bizitzen ari naizen une historikorako itxarobiderik ez badago ere. Etsipenak gorabehera, nire bizitza pertsonala eta historia bere osotasunean Maitasun suntsiezinak zaindurik daudelako itxaropen handi eta ziurtasunak soilik, Maitasun horri esker beretzat zentzua eta garrantzia hartzen baitituzte, horrelako itxaropenak eman dezake soilik kasu horretan adorea ekintzarako eta aurrera egiteko. Egia esan “ezin dezakegu eraiki” Jainkoaren erreinua geure indarrez; eraikitzen duguna betiere gizakiaren erreinua da, giza izaeraren muga guztiekin. Jainkoaren erreinua dohain bat da, eta horrexegatik handia eta ederra, eta horixe da itxaropenaren erantzuna. Eta ezin dezakegu –klasikoen hitzez esateko– “merezí” zerua geure egintzekin. Hau betiere gure merezimenduen gainetik dago; ez da merezia, beti dohain bat baizik, maitatuak izatea ere “merezia” ez den bezala. Hala ere, zeruaren “gainbalioaz” guztiz jakinean egon arren, betiere egia izaten jarraitzen du gure jarduera ez dela Jainkoaren begietan axolagabeko zerbait eta, beraz, ez da historiaren aurrerabiderako axolarik ez

duena ere. Ireki ditzakegu geure buruak eta ireki dezakegu mundua, Jainkoa sar dadin: egia, maitasuna, ontasuna. Hori da santuek egin dutena, “Jainkoaren lankide” gisa, munduaren salbamenerako lagundu baitute (ik. *1 Ko* 3, 9; *1 Ts* 3, 2). Aska dezakegu geure bizitza eta mundua, oraina eta geroa desegin litzaketen pozoitze eta kutsaduretatik. Kreazioko iturriak aurki ditzakegu eta haiek garbi mantendu eta horrela, aurretik dohain gisa datorkigun kreazioarekin batera, zuzen dena egin, haren eskakizunak eta xedea kontuan izanik. Horrek badu oraindik zentzua, itxura batean arrakastarik ez badugu ere edota kontrako indar handiagoen aurrean geure burua ezinean ikusten badugu ere. Horrela, alde batetik, gure jardueratik itxaropena sortzen da guretzat eta besteentzat; baina era berean, adorea ematen diguna eta gure jarduera bideratzen duena, bai une onetan eta bai txarretan, Jainkoaren promesetan oinarrituriko itxaropen handia da.

36. Jarduera bezala, sufrimendua ere gure bizitzaren zati da. Hau, alde batetik, mugatuak izatetik datorkigu eta, bestetik, historian zehar pilatzen zaizkigun erru ugarietatik, eta orain ere gehituz doazenetatik. Egiaz eginahalak egitea komeni da sufrimendua gutxitzeko; al bait gehien eragotzi errugabeen sufrimendua; minak arindu eta samin psikikoak gaintitzen lagundu. Hauek guztiak justiziazko eta maitasunezko eginbeharrak dira eta kristau-bizitzaren oinarritzko eskakizunen artean daude eta baita giza bizitza ororen eskakizunen artean ere. Min fisikoaren arloan aurrerapen handiak egin dira, azken hamarkadetan errugabeen sufrimendua eta samin psikikoak gehitu badira ere. Egia da ahal dugun guztia egin behar dugula sufrimendua gaintitzeko, baina mundutik guztiz kentzea ez dago gure esku, geure mugatu izatetik ezin garelako askatu, eta gutariko inor ez delako gauza gaitzaren, erruaren, indarra deuseztatzeko, ikusten dugunez, sufrimenduaren iturria etengabea baita. Hau Jainkoak egin dezake soilik: eta gizon eginik berbera historian sartu eta bertan sufrituko zuen Jainkoak soilik. Guk badakigu Jainko hau badela eta, beraz, ahalmen hau,

“munduko bekatua kentzen duena” (*Jn* 1, 29) presente dela munduan. Ahalmen hau badelako federekin sortu da historian munduaren salbamenaren itxaropena. Baina, hain zuzen ere, itxaropena da eta ez oraindik betetzea; itxaropen horrek ematen digu adorea ongiaren alde jartzeko, honezkero itxaropenik ez dela dirudien arren, eta gainera, historiaren haria kanpotik nola ageri den ikusirik, erruaren indarrak, baita etorkizunerako ere, izugarrizko presentzia duela jabeturik.

37. Itzul gaitzen geure gaira. Sufrimendua murriztu dezakegu, haren aurka borrokatu, baina ezin ken dezakegu. Hain zuzen ere, gizon-emakumeak, era guztietako minak kendu nahirik, samina esan nahi lukeen guztitik aldentzen saiatzen direnean, egiak, maitasunak, ongiak lekarkeen neke eta mina saihestu nahi dutenean, bizimodu hutsal batean erortzen dira, agian, minik ez, baina zentzurik ezaren eta bakardadearen sentipena askoz ere handiagoa den bizimodu hutsalean. Gizakia sendatzen duena ez da sufrimendua saihestea eta minari ihes egitea, atsekabea onartzeko, bertan heldutasuna lortzeko eta zentzua aurkitzeko ahalmena baizik Kristorekin bat egitearen bidez, Kristok maitasun amaigabeaz sufritu baitzuen. Tes-tuinguru honetan, Paulo Le-Bao-Thin († 1857) martiri vietnamdarraren gutun bateko zenbait esaldi aipatu nahi nituzke. Gutun horretan, fedetik datorren itxaropenaren indarrez, sufrimendua nola eraldatzen den azpimarratzen du. “Nik, Paulok, Kristoren izenagatik kartzelatua nagoen honek, egunero izaten ditudan atsekabeak azaldu nahi dizkizuet, Jainkoaren maitasunean bero-bero eginik, nirekin batera Jauna gorets dezazuen, haren maitasuna betikoa baita (ik. *Sal* 136 [135]). Kartzela hau benetako infernua da: era guztietako oinazeei, esaterako, girgilu, burdinazko kate eta loturei, gorrotoa, mende-kuak, gezur beltzak, hitz itsusiak, borrokak, egintza gaiztoak, justiziaren aurkako zinak, madarikazioak eta, azkenik, larritasunak eta tristura gehitu behar zaizkie. Baina, behinola hiru gazteak su-labetik askatu zituen Jainkoa nirekin dago beti eta atsekabeetatik askatzen nau, haiek gozotasun bihurtuz, haren

maitasuna betikoa baita. Edonor izutzeko moduko oinaze hauen artean poz eta alaitasunez beterik nago, ez bainago ni bakarrik, Kristo neurekin dudala baizik [...]. Nola jasan ikuskitun hau, ikusirik enperadoreek, mandarinek eta hauen gortekoek zure izen santua madarikatzen dutela, Jauna, kerubinen eta serafinen gaineko tronuan esertzen zaren hori? (ik. *Sal* 80 [79], 2). Begira, jentilek zure gurutzea zapaltzen dute! Non dago zure aintza? Hau guztia ikusirik, nahiago dut, zure maitasunez pizturik, zati-zati eginda hiltzea, zure maitasunaren testigu gisa. Agertu, Jauna, zeure ahalmena, salba nazazu eta emadazu zeure laguntza, indarra nire makaltasunean ager dadin eta jentilen artean goretzia izan dadin [...]. Senide maiteok: hau guztia entzutean, pozez beterik, Jainkoari etengabe eskerrak eman behar dizkiozue, Harengandik baitator on guztia; bedeinkatu nirekin Jauna, haren maitasuna betikoa baita [...]. Hau guztia idazten dizuet zuen fedea eta nirea bil daitezten. Ekaitz honen erdian aingurak botatzen ditut nire bihotzeko itxaropen bizia den Jainkoaren tronuraino...”.²⁸ Hau “infernutik” eginiko gutun bat da. Kontzentrazio-esparru bateko izu-laborri guztia adierazten da; han, tiranoen aldetik datozen oinazei, biktimgan berengan pizten den gaitza gehitu behar zaie, era horretara, torturatuzaileen krudelkeriaren bitarteko berri bihurtzen baitira. “Infernutik” eginiko gutuna da, baina bertan egia bihurtzen da *Salmoak* dioena: “Zerura igota ere, zu hantxe! Hildakoen Egoitzara jaitsita ere, zu bertan! Nahiz nik esan: ‘Ilunpeak estaliko al nau, egun-argia gau bihurtuko ahal zait inguruan!’, ilunpea ere ez da zuretzat ilun, gaua ere eguna bezain argi”. (*Sal* 139 [138] 8-12; ik. *Sal* 23 [22], 4). Kristo “infernura” jaitsi da eta horrela hara bota dutenaren ondoan dago, ilunpea argi bihurtzen. Sufrimendua eta oinazeak ikaragarriak dira ia jasanezinak. Hala ere, itxaropenaren izarra piztu da, bihotzeko aingura Jainkoaren tronuraino iritsi da. Ez da askatu gaitza gizakiarengan, baiziki eta argia gertatu da garaile: sufrimendua –sufrimenduari izateari utzi gabe– gorespen-kantu bihurtzen da hala ere.

²⁸ *Breviarium Romanum*, Ad Officium lectionis, 24 nov.

38. Gizadiaren handitasuna, funtsean, sufrimenduarekin eta sufritzen duenarekin duen erlazioak erabakitzen du. Honek berdin balio du giza banakoari eta gizarteari dagokionez ere. Sufritzen dutenak onartzea lortzen ez duen gizartea eta errukiaren bidez sufrimenduaren zama partekatzeko eta barneratuz eramateko gai ez den gizartea, krudela eta gizatasunik gabea da. Era berean, gizarteak ezin ditu onartu sufritzen dutenak, ez eta haiei lagundu ere beren minetan, pertsona banakoak ez badira gauza bera egiteko gai eta, azkenik, giza banakoak ezin du onartu bestearen sufrimendua berberak ez badu aurkitzen sufrimenduan zentzurik, garbitzeko eta heldutasuna lortzeko biderik, itxaropeneko biderik. Izan ere, sufritzen duen pertsona onartzeak haren sufrimendua ere nolabait nork bereganatzea esan nahi du, hura nirea ere izateraino. Baina, hain zuzen ere, orain sufrimendu partekatu bihurtu denez gero, beste pertsona bat ere hartan tarteko dela, sufrimendu hori maitasun-argiz zeharkatua da. Latinezko *consolatio* hitzak, hau da, kontsolamenduak, era ederrez adierazten du, bakardadean “norbaitekin izatea” esan nahirik; orduan hautsi egiten da bakardadea, une hartatik ez baita bakardaderik. Baina sufrimendua ongiaren, egiaren eta justiziaren maitasunagatik onartzeak ere bikain bihurtzen du gizadia. Izan ere, azken batean, nire ongizatea, nire osotasuna, egia eta justizia baino garrantzitsuagoa denean, orduan indartsuena gailentzen da; orduan indarkeria eta gezurra izaten dira nagusi. Egiak eta justiziak nire erosotasunaren eta osotasun fisikoaren gainetik egon behar dute, bestela nire bizitza bera gezur bihurtzen da. Eta maitasunari “bai” esatea ere sufrimendu-iturri da, maitasunak nire niari behin eta berriro uko egitea eskatzen baitu, neure burua moldatzen eta zauritzen utziz. Izan ere, niretzat betiere mingarri den uko egite hau gabe, ez dago maitasunik; bestela, egoismo huts bihurtzen da eta, horrela, deuseztatu egiten da maitasun gisa.

39. Bestearekin, besteekin sufritzea; egiaren eta justiziaren maitasunagatik sufritzea; maitasunagatik sufritzea egiaz maite duen pertsona bihurtzeko, hauek gizatasunaren funtsezko ele-

mentuak dira eta hauek galtzeak gizakia bera desegingo luke. Baina berriro ere galdera hau sortzen da: gai al gara horretarako? Bestea horren garrantzitsua al da, ni beragatik sufritzen duen pertsona bihurtzeraino? Egia nireztat horren garrantzitsua al da, beragatik sufritzea merezi izateraino? Maitasunaren promesa horren bikaina al da, beragatik norbere burua ematea merezi izateko? Gizon-emakumeen historian, kristau-fedeak, gizadiarentzat erabakigarriak diren sufritzeko modu hauek gizakiarengan era berriz eta sakonkiago piztu izanaren merezimendua du, izan ere. Egia, justizia eta maitasuna ideal hutsak ez ezik, barrunbe handi-handiko errealitateak direla irakatsi digu kristau-fedeak. Izan ere, Jainkoak –Egia eta Maitasuna denak– gugatik eta gurekin sufritu nahi izan duela irakatsi digu. Bernardo Clairvauxkoak esaldi miragarri hau asmatu zuen: *Impassibilis est Deus, sed non incompassibilis*,²⁹ Jainkoak ez du sufritzerik, baina bai errukitzerik. Gizakiak hain balio handia du Jainkoaren begietan, non gizaki bihurtu baitzen berberak gizakiarekin bat eginik, egiazki, haragiz eta odolez, sufritzeko, Jesusen Nekaldiaren kontakizunak adierazten digunez. Horregatik, giza nahigabe bakoitzean sufritze horretan partaide den bat sartu da; hortik zabaltzen da sufrimendu bakoitzean *consolatio* edo Jainko-maitasun partekatuaren kontsolamendua eta horrela agertzen itxaropenaren izarra. Egia esan, geure nahigabe eta proba txikietan ere beti behar izaten ditugu geure itxaropen handi edo txikiak: maitasunezko bisita bat, kanpoko eta barruko zaurien sendaketa, krisialdi bati emandako irtenbide ona, etab. Era honetako itxaropenak ere aski izan daitezke proba txiki samarretan. Baina benetan larriak diren probetan, neure ongizate, lanbide, ondasunen aurretik egia hautatzeko erabakia hartu behar dudanean, orduan, benetako ziurtasuna behar da, gorago aipatu dugun itxaropen handia. Horregatik behar ditugu lekukoak, martiriak, egunez egun hori froga diezaguten. Eguneroko bizitzako aukerabide txikietan, erosotasunaren aurretik ona dena hobesteko, hain zuzen ere horrela bi-

²⁹ *Sermones in Cant. Serm. 26,5: PL 183, 906.*

zitza benetan bizi dugula jakinik. Esan dezagun beste behin: egiaren maitasunagatik sufritzeko gaitasuna gizatasunaren irizpidea da. Hala eta guztiz ere, sufritzeko gaitasun hau, barnean daramagun eta sostengutzat dugun itxaropen-motaren eta itxaropen handiago edo txikiagoaren arabera izango da. Santuek egin ahal izan zuten gizakien bide handia, Kristok gure aurretik egin zuen bezala, itxaropen handiaz beterik zeudelako.

40. Eguneroko gertaerei buruz beste ohartxo bat gehitu nahi nuke, hain garrantzi gabea ez dena. Zitada gogaikarri bezala egunero behin eta berriro sortzen zaizkigun eguneroko zailtasun txikiak “eskaini” ahal izatea, horrela zentzua emanez, orain dela gutxi arte oso zabaldurik zegoen debozio mota zen, gaur egun, agian, gutxiago praktikatzan bada ere. Debozio honetan, zalantzarik gabe, baziren gehiegizko gauzak eta baita kaltegarriak ere, agian, baina komeni da galdetzea, ez ote zuen nolabait lagungarri izan dakigun gauza funtsezkorik. Zer esan nahi du “eskaintzeak”? Pertsona hauek ongi sinetsirik zeuden, beren zailtasuntxoak Kristok gure ondoan sufritzen zituenean sortan sartzen zirela eta, horrela, gizadiak behar duen errukizko altxor horren osagai bihurtzen zirela nolabait. Hone-la, eguneroko nahigabe txikiek zentzu bat aurki dezakete eta gizakien artean ongia eta maitasuna bultzatzen lagundu. Beharbada, geure buruei galde diezaiekegu, geuretzat ere zentzuzko aukera bat berriro ez ote litzatekeen izango hori.

III. Epaiketa itxaropenean eskolatzeko eta hura praktikatzeko gunea

41. Elizaren *Kredo* nagusiaren erdialdean Kristoren misterioa azaltzen da, Aitagandik betidanik sortu eta Maria Birjinagandik mundu honetan jaio zenetik hasita, gurutzearekin eta piztuerarekin jarraituz, beraren itzulera arte; bada, Kristoren misterioaz ari den *Kredoaren* atal hori, hitz hauekin burutzen da: “aintzaz etorriko da berriz biziak eta hilak epaitzera”. Epai-
ketaren ikuspegiak hasiera-hasieratik izan du eragina kris-

tauengan, baita haien eguneroko bizitzan ere. Oraingo bizitza ordenatzeko irizpide gisa, kontzientziaren dei gisa eta, era berean, Jainkoaren justizian jarria duten itxaropen gisa. Kristogan den fedea ez du egundo begiratu atzerantz soilik, ezta gorantz soilik ere, beti aurrerantz, Jaunak behin eta berriro iragarri zuen justiziaren ordurantz baizik. Aurrerantz begiratze honek, kristautasunarentzat duen garrantzia eman dio orainari. Kristau-erakin sakratuak taxutzerakoan, Kristorengan den fedea historian eta lurbiran zehar duen zabalera ikusteko eran adierazi nahi izan denean, ekialdean agertu ohi zen errege gisa itzultzen den Jauna –itxaropenaren ezaugarria–, mendebaldean, berriz, azken Epaiketa, geure bizitzaz erantzun behararen irudi gisa, hain zuzen ere, fededunak eguneroko bizitzan agertzen dituen irudia. Ikonografiaren garapenean, hala ere, Epaiketaren alde mehatxagarri eta iluna nabarmendu da; jakina, hori itxaropenaren distira baino liluragarriago zen artistentzat eta itxaropena maiz gelditzen zen mehatxupean ezkutaturik.

42. Aro berrian, azken Epaiketaren ideia lausotu egin da: kristau-fedea arimaren salbamen pertsonalari begira ulertzen da eta horrantz bideratzen da guztia; historia unibertsalari buruzko gogoetan, ordea, gehienbat aurrerapenaren ideia da nagusi. Horrek ez du esan nahi Epaiketaren zain egotearen edukia desagertu denik, orain forma guztiz desberdina hartzen duela baizik. XIX. eta XX. mendeetako ateismoa, dituen sustrai eta helburuagatik, moralismo bat da, munduko eta historia unibertsaleko zuzengabekeriaren aurkako protesta bat. Hainbeste zuzengabekeria, errugabekoen hainbeste sufrimendu, boterearen hainbeste zinismo dagoen mundua ezin daiteke izan Jainko onaren obra. Horrelako mundu baten erantzukizuna bere gain duen Jainkoa ez litzateke Jainko zuzena eta gutxiago oraindik Jainko ona. Kontra egin behar zaio Jainko honi, hain zuzen ere, moralaren izenean. Eta justizia ezartzeko Jainkorik ez dagoenez gero, orain badirudi gizakia bera dela justizia ezartzera deitua. Dena dela, mundu honen sufrimenduaren aurrean Jainkoaren aurka protesta egitea ulertzekoa bada, inongo

Jainkok egiten ez duena eta egin ezin duena gizadiak egin dezakeelako eta egin behar duelako xedea, harropuzkeria eta intrintsekoki faltsua da. Premisa honetatik krudelkeria eta zuzengabekeria handienak gertatzea ez da kasualitatea, xede horren faltsutasun intrintsekotik berez-berez datorrena baizik. Justizia bere buruz egin behar duen mundua itxaropenik gabeko mundua da. Inork ez ezerk ez du erantzuten mendeetako sufrimenduari buruz. Inork ez ezerk ez du ziurtatzen, boterearen zinismoak –edozein jantzi ideologiko lilugarri jantzita eremunduan nahi duen guztia egiten jarraituko ez duenik. Horrela, Francfort-eko eskolako pentsalari handiek, Max Horkheimer-ek eta Theodor W. Adorno-k, kritika egin diete bai ateismoari eta bai teismoari. Horkheimer erabat baztertu du barnean Jainkoaren ordezkorik izan daitekeenik, baina era berean Jainko on eta zuzenaren irudia ere baztertu egin du. Itun Zaharreko irudien debeku ezin zorrotzagoaren harian, hark ezin iritsizkoa den “gutzizko Bestea denaren nostalgiaz” hitz egiten du: historia unibertsalari zuzenduriko deia da. Adornok ere oso-osoan baztertzen ditu irudiak eta, beraz, maite duen Jainkoaren “irudia” ere bai. Hala ere, beti azpimarratu izan du “ezezko” dialektika hau ere eta honako hau baieztatu du: justiziak, egiazko justiziak, “sufrimendua errotik kendua izango litzatekeen mundua eskatzen duela, ez oraingo sufrimendua soilik, baita ezinbestean iragana dena ere”.³⁰ Baina honek esan nahiko luke –baiezko sinboloetan eta, hortaz, berarentzat desegokietan– adieraziz, ezin daitekeela justiziarik izan hilen piztuerarik gabe. Baina ikuspuntu horrek “haragiaren piztuera dardakar ondoriotzat, eta hori, idealismoak, espiritua erabat nagusi denekoak, ezin du inola ere onartu”.³¹

43. Kristautasunak ere ikas dezake eta ikasi behar du berriro irudiak baztertze zorrotz honetatik, Jainkoaren lehen agin-

³⁰ *Negative Dialektik* (1966), Hirugarren zatia, III, 11: Gesammelte Schriften, vol. VI, Frankfurt/Main, 1973, 395.

³¹ *Ibid.*, Bigarren zatia, 207.

duaren atala baita (ik. *Ex* 20, 4). Latrango IV. Kontzilioak azpimarratu zuen ezezko teologiaren egia, eta adierazi zuen espresuki, Kreatzailearen eta kreaturaren arteko antzekotasuna oso handia izanda ere, beti dela handiagoa haien arteko desberdintasuna.³² Fededunarentzat, hala ere, irudi oro baztertzeak ez du iritsi behar bi tesiei, teismoari eta ateismoari, “ezetza” emateraino, Horkheimer-ek eta Adorno-k nahi zuten bezala. Jainkoak berak “irudia” eman dio bere buruari: gizon egin den Kristorengan. Harengan, Gurutziltzatuak, Jainkoaren irudi faltuak ukatzea muturreraino eraman du. Orain, Jainkoak, sufritzen duenaren irudian agertzen du, hain zuzen ere, bere aurpegia, eta Jainkoak bertan behera utzitako gizakiaren egoeran esku hartzen du, egoera hori beregain hartuz. Oinazetan dagoen errugabeko hau itxaropen - ziurtasun bihurtu da: Bai, bada Jainkoa, eta justizia egiten daki guk ulertu ezin dugun eran, baina fedez sumatu ahal dugun eran. Bai, bada haragiaren piztuera.³³ Bada justizia.³⁴ Bai, bada iraganeko sufrimenduaren “ezeztatzea”, zuzenbidea berriro ezartzen duen kalte-ordaina. Horregatik, azken Epaiketan jarritako fedea gauza guztien aurretik eta gainetik itxaropena da; beraren premia oso argi gelditu da, hain zuzen ere, azken mendeetako asaldura artean. Uste sendoa dut, justiziaren arazoa funtsezko argudioa dela edota, behintzat, argudiorik indartsuena dela betiko bizitzaren alde. Gutariko bakoitzak dugun eta bizitza honetan ukatzen zaigun kalte-ordain osoaren beharra, maitasunaren hilezkortasunean dugun itxaropena, egiaz, arrazoi sendoak dira gizakia betiko bizitzarako egina dela pentsatzeko; baina historiako zuzengabekeria inola ere azken hitza ezin izan daitekeelako aitormenak egiten du bete-betean sinesgarri Kristoren itzuleraren beharra eta bizi berria.

44. Justiziaren izenean Jainkoaren aurka garrasi egiteak ez du balio. Jainkoa gabeko mundua itxaropenik gabekoa da (ik.

³² Ik. *DS*, 806.

³³ Ik. *Catechismus Catholicae Ecclesiae*, nn. 988-1004.

³⁴ Ik. *ibid.*, n. 1004.

Ef 2, 12). Jainkoak soilik egin dezake justizia. Eta fedeak ematen digu ziurtasun hori: Berak egiten du. Lehenik, azken Epai-ketaren irudia ez da izua sortzen duen irudia, itxaropena sortzen duena baizik; agian, guretzat, itxaropenaren irudi erabakigarria. Baina ez ote da beldur-ikara sortzen duen irudia ere? Nik erantzukizuna eskatzen duen irudia dela esango nuke. Beraz, san Hilariok aipatzen duen izu haren irudia, gure beldur oro maitasunarekin erlazonaturik dagoela dioenean.³⁵ Jainkoa justizia da eta justizia egiten du. Hau da gure poza eta gure itxaropena. Baina haren justizian grazia ere badago. Hori ikusten dugu Kristo gurutziltzatu eta berpiztuari begiratzean. Biek –justizia eta grazia– beren barne-erlazio zuzen batean ikusiak izan behar dute. Graziak ez du baztertzen justizia. Ez du zuzengabekeria zuzen bihurtzen. Ez da guztia garbitzen duen eskuila, lurrean egin izan den guztia beti balio bereko izatera iritsiz. Era honetako zero eta graziaren aurka protesta egin, arrazoiz, esaterako, Dostoëvskij-k *Los hermanos Karamazov* bere eleberrian. Azkenean gaiztoak, betiereko otorduan, ez dira era berean eseriko mahaiari biktimen ondoan, ezer gertatu ez baltz bezala. Honetaz Platonen testu bat aipatu nahi nuke, epaiketa zuzenaren bihozkada adierazten duena, hein handi batean kristauarentzat ere egiazkoa eta onuragarria baita. Mitologi irudiekin, baina argi eta garbi egia adierazten dutenekin, dio azkenean arimak biluzik egongo direla epailearen aurrean. Orain ez da kontuan hartzen behin batean historian izan zirena, egiaz zer diren baizik. “Orain [epaileak] errege baten arima du, agian, bere aurrean [...] edota beste errege edo menderatzaile bat, eta ez du ezer sanorik ikusten harengan. Zigorkatua ikusten du eta zin faltsuak eta zuzengabekeriak eragindako orbainez betea [...] eta guztia da okerra, gezurrez eta harrokeriaz betea, eta harengan ez dago ezer zuzenik, egiarik gabe hazi delako. Eta arima bidegabekeriagatik, neurririk ezagatik, harropuzkeriagatik eta beronen jokaeran duen begirunerik ezagatik, gehiegikeriaz eta zitalkeriaz beterik ikusten du. Hori ikusirik,

³⁵ Ik. *Tractatus super Psalmos*, Ps. 127, 1-3: CSEL 22, 628-630.

berehala bidaltzen du kartzelara, han merezitakoa sufri dezan [...]. Baina zenbait kasutan bestelako arima ikusten du bere aurrean, deboziosko eta egiazko bizitza egin duena [...]; poztu egiten da eta dohatsuen uhartera bidaltzen du.³⁶ Jesusek gizon aberatsaren eta Lazaro behartsuaren parabolan (ik. *Lc* 16, 19-31), ohar gisa haren antzeko arima bat aurkeztu du, harropuzkeriaz eta oparotasunez hondaturik dagoena, berak zulatu du bere eta behartsuaren artean zeharkatu ezin den leizea: atsegin materialetan itxirik egotearen leizea, bestea ahanztearen leizea, maitatzeko gai ez izatearen leizea, orain erremediorik gabeko egarri bizi bihurtzen zaiona. Ohartarazi behar dugu Jesus hemen ez dela mintzo behin betiko destinoaz, Epaiketa nagusiaren ondokoaz; antzinako judaismoan zen ikusmoldeaz ari da, hau da, heriotzaren eta piztueraren arteko egoeraz, oraindik azken epaia falta deneko egoeraz.

45. Antzinako judaismoaren ikusmolde honek bere baitan hartzen du, ez arimak behin-behineko esparru batean egotea soilik, baita haiek jadanik zigorra sufritzea ere, gizon aberatsaren parabolan ikusten denez, edota, alderantziz, behin-behineko zoriona gozatzea ere. Eta, azkenik, ez da baztertzen egoera honetan garbitze eta sendatzeak izan daitezkeelako ideia ere, horrela, arimak Jainkoarekin bat egiteko heldutasuna lortuz. Hasierako Elizak bereganatu egin zituen ikusmolde hauek, eta hortik, apurka-apurka, garbitokiaren doktrina garatu zen men-debaldeko Elizan. Hemen ez dugu zertan azterturik garapen horren prozesu historiko gorabeheratsua; izatez zer den galde-tzen diogu soilik geure buruari. Gizakiaren bizi-hautaketa, azken finean, heriotzarekin egiten da; bizitza hori Epailearen aurrean da. Bizitza osoan zehar gauzatuz joan den hautaketa honek hainbat forma izan ditzake. Egiaren nahia eta maitasunerako jarrera beren baitan guztiz desegin duten pertsonak izan daitezke. Guztia gezur bihurtu duten pertsonak; gorrotorako bizi diren eta berengan maitasuna oinperatu duten per-

³⁶ *Gorgias* 525a-526c.

tsanak. Hau ikuskizun ikaragarria da, baina geure historiaren kasu batzuetan ikusi ahal izan ditugu lazturaz era horretako gizakiak. Horrelakoengan ez legoke jadanik inolako erremedio-rik, ongiaren suntsitzea bueltarik gabea litzateke: hori adierazi nahi da *infernu*a hitzarekin.³⁷ Bestalde, pertsona garbi-garbiak ere badira, Jainkoak erabat harturik eta, beraz, lagun-hurkoari erabat irekiak daudenak; oraindik beren izaera osoa Jainkoarekin bat egitera bideratua duten pertsonak; horientzat Jainkoagana joatea, orain direna burutzea besterik ez da.³⁸

46. Hala ere, geure esperientziak dioskunez, ez bata eta ez bestea dira ohiko kasuak gizakien artean. Gizaki gehienengan –hala uste dugu behintzat– beren bihotzaren sakon-sakonean gelditzen da azken irekiera egia, maitasun eta Jainkoagana. Baina bizitzako aukera zehatzetan, irekiera hau lausotu egin da gaizkiarekin hartzen diren konpromisoekin; zikinkeria ugari dago garbitasunaren inguruan, eta, hala ere, garbitasun-egarria han gelditzen da eta zikinkeria hondotik birsortzen da beste behin eta presente dago ariman. Zer gertatzen da pertsona hauekin Epailearen aurrean agertzen direnean? Beren bizitzan bildu duten zikinkeria guztiak garrantzia galduko du bat-batean? Edota zer besterik gerta daiteke? San Paulok, *Korintoarrei eginiko Lehen Gutunean*, Jainkoak gizakiaz, honen egoeraren arabera, emango duen askotariko epaiatz argi egiten digu. Ezin ikusizkoa dena nolabait adierazi nahi duten irudien bidez egiten du; guk ezin dugu agertu irudi hauek kontzeptuetan, heriotzaz harantzko leihora ezin garelako hurbildu eta hangoaz esperientziarik ez dugulako. Paulok dio kristau-bizitzaz batez ere guztien oinarri denaren gainean eraikia dagoela: Jesu Kristoren gainean. Hau sendo dagoen oinarria da. Oinarri honen gainean sendo iraun badugu eta geure bizitza honen gainean eraiki badugu, badakigu oinarri hau ezin zaigula kendu ezta heriotzan ere. Eta honela jarraitzen du: “Baina oinarri honen

³⁷ Ik. *Catechismus Catholicae Ecclesiae*, nn. 1033-1037.

³⁸ Ik. *ibid.*, nn. 1023-1029.

gainean urrez, zilarrez, harribitxiz, zurez, belarrez edo lastoz eraiki daiteke. Jaunaren auzi-egunak agerian jarriko du norberaren lanaren balioa, sutan agertuko baita egun hori, eta suak frogatuko du nolakoa den bakoitzaren lana. Eraikitakoak suari eusten badio, egileak saria hartuko du; eraikitakoa erretzen bada, ordea, egileak galdu egingo du saria; bera, hala ere, bizirik aterako da, baina suteari ihes egiten diona bezala” (3, 12-15). Dena dela, testu honetan garbi agertzen da, salbamenak forma ugari izan ditzakeela; eraikitako zenbait etxe guztiz kiskaliak izan daitezkeela; onik irteteko, norbera lehen pertsonan sutatik igaro beharra dagoela, behin betiko Jainkoarentzako gai izan eta betiko eztei-otorduko mahaian esku hartu ahal izateko.

47. Oraingo zenbait teologok garretan dagoen eta era berean salbatzen duen sua Kristo bera, Epaille eta Salbatzailea, dela uste dute. Harekin aurkitzea da Epaiaketako egintza erabakigarria. Haren begiradaren aurrean gezur oro desegiten da. Harekin aurkitzea da, haren sutan errez, eraldatzen eta askatzen gaituena, egiaz gu geu izatera irits gaitezen. Une horretan, bizitzan zehar eraiki den guztia lasto ihar bezala, harropuzkeria huts bezala ager daiteke eta lurrera erori. Baina aurkitze honen saminean agertzen zaigu argi-argi geure izaeraren zikina eta gaiztoa, eta hor dago salbamina. Haren begiradak, haren bihotzaren ukituak, sendatzen gaitu, “suteari ihes egitean bezala” egiaz mingarria den eraldaketa baten bidez. Baina zorioneko mina da. Min horrekin haren maitasunaren indar santua sartzen zaigu, sua alde guztietatik sartzen den bezala, azkenik, osoki gu geu eta, beraz, osoki Jainkoarenak izateko. Honela, guztiz argi ulertzen da justiziaren eta graziaren arteko lotura: gure biziera ez da garrantzirik gabea, baina gure zikinkeriek ez gaituzte betiko zikindurik uzten, Kristorenganantz, egiarantz eta maitasunerantz begira baldin bagaude behintzat. Azken batean, zikinkeria hau errea izan da Kristoren Pasioan. Epaiaketaren unean, haren maitasuna munduan eta gugan dagoen gaitz guztia baino handiagoa dela sumatzen dugu eta hala jasotzen dugu. Maitasunaren mina

gure salbamen eta gure poz bihurtzen da. Argi dago, ezin dugula hemengo denboraz neurtu eraldatzen duen erretze horren “iraupena”. Aurkitze honen “une” eraldatzailea lurreko neurrietatik at dago. Bihotzaren denbora da, Kristoren Gorputzean bat egiteko ematen den “urratsaren” denbora.³⁹ Jainkoaren Epaiketa itxaropen-unea da, bai justizia den aldetik eta bai grazia den aldetik. Grazia hutsa balitz, lurreko guztia garrantzirik gabeko bihurtzen duena, Jainkoak justiziari buruz egiten diogun galderaren erantzuna eman beharko liguke oraindik, guretzat galdera hori erabakigarria baita historiaren eta Jainkoaren beraren aurrean. Justizia hutsa balitz, azkenean gu guztiontzat beldur izateko motiboa litzateke. Jainkoa Kristorengan gizon egiteak bat egin ditu epaiketa eta grazia. Justizia zorrozki ezartzen da: guk guztiok itxaroten dugu salbamena “begirune santuz” (*Fil* 2, 12). Hala ere, graziak itxaropena pizten du guregan eta konfiantzaz beterik geure “Laguntzailea” *parakletos* (ik. *1 Jn* 2, 1) bezala ezagutzen dugunarengana bideratzen gaitu.

48. Puntu honetaz bada beste gauza bat ere aipatu behar duguna, kristau-itxaropenaren praxirako garrantzitsua baita. Antzinako judaismoan pentsatzen zen, otoitzaren bidez lagun zitzaiekeela hilei beraien tarteko egoeran (ik. adibidez *2 Mk* 12, 38-45: I. mend. K. a.). Kristauek praxi hau naturaltasun osoz hartu zuten eta ohikoa da ekialdeko Elizan nahiz mendebaldekoan. Ekialdeak ez du ezagutzen “beste munduan” arimak garbitzeko eta bekatuen zorra ordaintzeko den sufri-mendurik, baina bai ezagutzen ditu zorion- eta pairamen-mailla desberdinak tarteko egoeran. Hala ere, hilen arimei eman dakieke “poza eta gozagarria” Eukaristiaren, otoitzaren eta limosnaren bidez. Maitasuna beste munduraino irits daitekeela, elkarrekiko harremanik badela eta heriotzaren mugaz harat sentimenduzko loturak ditugula, hori guztiori kristautasunak mende guztietan izan duen funtsezko uste sendoa da eta gaur

³⁹ Ik. *ibid.*, nn. 1030-1032.

egun ere esperientzia pozgarria izaten jarraitzen du. Nork ez du sumatzen joan ziren pertsona maiteei, ontasun eta esker oneko seinaleak helarazteko edota barkamena eskatzeko beharra? Orain galdera hau egin geniezaioke geure buruari: “garbitokia”, Jaunarekin, Epaille eta Salbatzailearekin, aurkitzean suaren bidez garbitzea besterik ez bada, nola har dezake parte hirugarren pertsona batek, pertsona hori bestearentzat denik eta hurbilekoena bada ere? Halako arazoa mahai gainera ekartzean, ohartu beharko genuke, gizakia ez dela bere baitan itxia den monada bat. Gure bizitzak batasun sakonean daude elkarrekin, interakzio ugariren bidez elkarrekin lotuak. Inor ez da bakarrik bizi. Inork ez du bakarrik bekatu egiten. Inor ez da bakarrik salbatzen. Nire bizitzan etengabe sartzen da besteen bizitza: pentsamenduetan, hitzetan, lanetan edo egintzetan. Eta alderantziz, nire bizitza besteen bizitzan sartzen da, onerako nahiz txarrerako. Horregatik, nire bitartekotza inola ere ez da bestearekin zerikusi gabekoa, harengandik kanpokoa den zerbait, ezta heriotzaren ondoren ere. Izakia-
ren barruan, berarekiko nire esker ona, beraren aldeko nire otoitza, berarentzat garbiketako etapa txiki bat izan daiteke. Eta honekin ez dago lurreko denbora Jainkoaren denbora bihurtu beharrik: arimen arteko komunikazioan lurreko denbora soilik gainditurik gelditzen da. Inoiz ere ez da berandu bestearen bihotza ukitzeko eta inoiz ere ez da alferrikakoa. Honela, argiago egiten da kristau-itxaropenaren kontzeptu garrantzitsu bat. Gure itxaropena beti eta esentzialki besteentzako itxaropena ere bada; honela soilik da niretzat ere egiazko itxaropena.⁴⁰ Kristauok sekula ere ez genuke galdera hau egin behar: Nik nola lor dezaket neure salbamena? Galdera hau egin beharko genioke geure buruari: Zer egin dezaket besteak salba daitezen eta haientzat ere itxaropen-izarra pitz dadin? Orduan egin izango dut gehien neure salbamenerako ere.

⁴⁰ Ik. *ibid.*, n. 1032.

Maria, itxaropen-izarra

49. Elizak VIII/IX. mendeko, beraz, mila urtetik gorako, himno batez agurtzen du Maria, Jainkoaren Ama, “itsasoko izar” deituz: *Ave maris stella*. Gizakiaren bizitza bide bat da. Nora darama bide honek? Nola aurkitu norabidea? Bizitza historiaren itsasoan zehar, askotan iluna eta ekaitzez betea den itsasoan zehar, eginiko bidaia bezalakoa da; bidea nondik den erakusten diguten izarrei begira egiten dugun bidaia. Gure bizitzako benetako izarrak zintzo bizi izaten jakin duten pertsonak dira. Haiek dira itxaropen-argiak. Jesu Kristo da, izatez, argietan argi dena, historiaren ilunpeetan distira egiten duen eguzkia. Baina Harengana iristeko, hurbileko argiak ere behar ditugu, Kristoren argia islatuz argi egiten duten pertsonak, horrela gure ibilaldirako norabidea erakutsiz. Eta itxaropen-izar izateko zeregin hori nork bete dezake guretzat hobeki Mariak baino, bere “baietzaz” Jainkoari berari gure mundurako atea ireki zionak baino; Jainkoa gizon egiteko, guretariko bat egiteko, gure artean bizitzen jartzeko (ik. *Jn* 1, 14) Elkartasun Kutxa bizi bihurtu zenak baino?

50. Eska diezaiozun, bada, laguntza: Andre Maria, zu izan zinen Israelgo arima apal eta handietakoa, Simeon bezala, “Jainkoak Israel noiz kontsalatuko” zain zegoena (*Lk* 2, 25) eta, Ana bezala, “Jerusalemen askapena” (*Lk* 2, 38) itxaroten zegoena. Zu, itxaropenaz eta Abrahami eta ondorengoei (ik. *Lk* 1, 55) eginiko promesaz mintzo ziren Israelgo Eskritura Santuekin harreman estuan bizi zinen. Horrela ulertzen dugu sortu zitzaizun ikara santua, Jaunaren aingerua zure bizilekuan sartu eta Israelen eta munduaren itxaropen zena erdituko zenuela esan zizunean. Zugatik, zure “baietzagatik”, beteko zen milaka urtetako itxaropena eta mundu honetan eta bertako historian partaide izatera etorri. Zu eginkizun honen handitasunaren aurrean makurtu zara eta “baietza” eman duzu: “Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan bezala” (*Lk* 1, 38). Alaitasun santuz beterik Elisabet zeure lehengusina bisitatzer

Judeako mendialdera arin-arin joan zinenean, geroko Elizaren irudi bihurtu zinen, bere barnean munduko itxaropena zera-mana historiaren mendietan zehar. Baina zeure *Magnificat*-en, hitzez eta kantuz, mendez mende zabaldu duzun alaitasunarekin batera, ezagutzen zenituen profetek eginiko baieztapen ilunak Jainkoaren zerbitzariak mundu honetan igaroko zituen sufrimenduez. Hura Belengo ukuiluan jaio zenean, aingeruen distira agertu zen artzainei berri ona ematen zietelarik, baina era berean argi-argi gelditu zen Jainkoaren txirotasuna mundu honetan. Simeon agureak zure bihotza zulatuko zuen ezpataz, zure Semea mundu honetan eztabaida sortuko duen seinalea izango delakoaz hitz egin zizun (ik. *Lk* 2, 35). Jesusen ageriko bizitza hasi zenean, zuk alde batera geratu behar izan zenuen, Hark sortuko zuen eta haren hitza entzun eta beteko zutenez osatuko zen familia berria haz zedin (ik. *Lk* 11, 27ond.). Jesusen ekintzako lehen urratsen handitasun eta alaitasuna gorabehera, Nazaretoko sinagogan bertan probatu zenuen itz haiek: “eztabaida sortuko zuen seinalea”, egia zirela (ik. *Lk* 4, 28 ond.). Horrela ikusi duzu gorantz zetorren etsaitasunaren indarra eta nola apurka-apurka Jesusen inguruan sortuz zihoan kontrakotasuna, gurutzeko ordua etorri arte; gurutzean ikusi zenuen munduko Salbatzailea, Dabiden oinordekoa, Jainkoaren Semea porrot egindako bat bezala hiltzen, iraindua izateko arriskuan, gaizkileen artean. Hitz hau jaso zenuen: “Emakume, horra hor zure semea” (*Jn* 19, 26). Gurutzetik eginkizun berri bat hartu zenuen. Gurutzetik hasita beste era batean ama izaten hasi zinen: Zeure Seme Jesusengan sinistu nahi duten eta hari jarraitu nahi dioten guztien ama bihurtu zinen. Saminezko ezpatak zulatu zuen zure bihotza. Hil ote da itxaropena? Mundua argirik gabe gelditu ote da behin betiko, bizitza helbururik gabe? Aingeruaren hitza entzungo zenuen, agian, ordu hartan, Gizakundearen Adierazpenean zure beldurrari erantzunez aingeruak esaniko hitz haiek: “Ez beldurtu, Maria” (*Lk* 1, 30). Zenbat aldiz esan ote zien Jaunak, zure Semeak, gauza bera bere ikasleei: ez izan beldurrik! Golgotako gauean berriro entzun

zenituen zeure bihotzean hitz horiek. Bere ikasleei hala esan zien Berak saldua izan baino lehen: “Izan adore! Nik garaitua dut mundua” (*Jn* 16, 33). “Ez kezkatu, ez izan beldur” (*Jn* 14, 27). “ Ez beldurtu, Maria”. Nazaretako orduan aingeruak hau ere esan zion: “Beraren erregetzak ez du azkenik izango” (*Lk* 1, 33). Hasi baino lehen amaitu ote zen, bada, haren erregetza? Ez, gurutzearen ondoan, Jesusek berak esan zuenez, fededunen ama bihurtu zinen. Fede honekin, Larunbat Santuko iluntasunean itxaropenaren ziurtasuna ere badenean, Pazko-goizarekin aurkitzera joan zara. Piztueraren pozak hunkiturik utzi du zure bihotza eta era berriz bat egin zaitu ikasleekin, fedearen bidez Jesusen familia izatera etorriko direnekin. Honela, bihotz batez otoitzari emanak bizi ziren fededunen elkartean izan zinen Igokunde ondoren Espiritu Santuaren dohainaren zain (ik. *Eg* 1,14), Mendekoste egunean hartuko zuten Espiritu Santuaren zain. Jesusen “erregetza” gizon-emakumeek irudika zezaketenaz bestelakoa zen. “Erregetza” ordu hartan hasi zen eta ez du sekula ere azkenik izango. Horregatik zuk ikasleekin irauten duzu beraien ama bezala, Itxaropenaren Ama bezala. Santa Maria, Jainkoaren Ama, gure Ama, irakatsiezaguzu zeurekin batera sinesten, itxaroten eta maitatzen. Erakutsiezaguzu haren erreinurako bidea. Itsasoko Izarra, argi egizu gure gainean eta gida gaitzazu geure bidean.

Erroman, San Pedrorean, 2007ko azaroaren 30ean, san Andres Apostoluaren jaiegunean, nire Aitasantutzako hirugarren urtean.

BENEDIKTO XVI.a